

## Erronken ikasturtea

Pandemiak baldintzatuta zabalduko dituzte atak ikastetxeek / 6-7



**Herritarren parte hartze prozesuak martxan jartzeko lau dirulaguntza jaso dira Sakanan / 9**

**"Hurrengoan euskaraz!" Euskaltegietako atak matrikulatzeko zabalik daude / 11**

**Aralarko santutegi ondoko Lakuntzetxea zaharberitzeko lanek milioi erdiko aurrekontua dute / 12-13**

**Arbizuko kanpinean Tritoiena jokatu zen, COVID-19 ondorengo Nafarroako lehen lasterketa / 16**

**Igandean 91. Altsasu Txirrindularitza proban parte hartuko dute afizionatuen mailako taldeek / 19**

**Urbasa, Hutsun eta Ortziren ikuskizuna, gaur, ostirala, 22:30ean, Olaztin izanen da / 21**

AEKn, IRAKASLE BATEK BIK BESTE BALIO DU.

**aek**  
euskara praktikoa

Irakasten daki eta ikas dezazun nahi du.

Jantze Urrutiarra Aizpuru, AEK-ko irakaslea

**EUSKARA-IKASTAROAK**

**SAKANA**  
Itsasi AEK euskaltegia

Izena emateko azken eguna: irailaren 21a

Gartzia Ximenez 46, behea  
ALTSASU  
948 468 258  
sakana@aek.eus

Sakanako Mank: BEKAK

**DIRULAGUNTZAK**



Josefina Iriberry "La Urdintarra" errotaren alean. MUNIA

# "Hemen jaio nintzen, eta hemendik eraman naitzatela"

XVII. mendetik egon da martxan ibai ondoan "La Urdintarra" errota, duela gutxi bueltak emateari utzi zion arte. Lehenengo, garauak ehotzen zituzten; geroago, argindarra ere sortzen zuten bertan. Han jaio, hazi eta bizi izan da Josefina Iriberry

## Munia El Marhoum Iurretagoiena

URDIAIN

"La Urdintarra". Hala deitzen da Urdaingoa herrian dagoen errota, nagusia etxarriarra bazen ere. Josefina Iriberry bertan eman du bizitza osoa. Han jaio zen, 1933an, eta bertan hazi eta bizi izan da orain arte. Dena den, denbora gutxi pasa dela dirudi, atzo gertatu izan balira bezala kontatzen baititu errotan bizi eta ikusitako istorioak. Anekdotak eta bizipenez beteta dagoen emakumea da, eta kontatzeko gogo izugarria duena.

Errota ez dago herrian bertan, ubeldetik hurbil baizik. Badu logika, errota izanik ura behar baitu martxan jartzeko. Erraz kontatzen du Josefinak nola funtzionatzen duen makinak: "Baditu bi harri, bata gainean eta bestea azpian. Behekoa, 'solera' deitzen dena, geldidago, ez du bueltarik ematen; gainekoa, 'voladora' izenekoa da, mugitzen dena".

Dena den, gainaldeko harriak bueltak eman ditzan zerbait behar da, eta ekuazio horretan sartzen da ura. Errotarriak dauden gelaren azpitik igarotzen zen ura, "indar handiarekin", Josefinak dioen bezala. Ur horrek etxearen azpian dagoen birakariari bueltak ematen zizkion, eta horrek, aldi berean, 'voladora' harria mugiarazten zuen. Hala, bi harrien artean jarritako garaua ehotzen zuten. Martxan egon zen azken urteetan gehienbat garagarra ehotzen zuten, baina ez zen produktu bakarra. Artoa zen beste gaietako bat, "taloak jan ahal izateko, miseria zegoenean". Eta azkenik, garia ere ehotzen zuten "La Urdintarra"-n. Garau bakoitzak bere bi harriak zituen, ez nahasteko, eta txikitu ondoren, kutxetan jasotzen ziren lortutako gaiak. Josefinak kontatzen duenez, garagarraren eta gariaren harriak txikixekoak dira, eta artoarena lodiagoa, "zailagoa" delako arto garaua xehatzea.

Bertan jaio zen bera, baina errota ez da haiena izan betidanik. Izan ere, nagusia Etxarrikoa zuten, edo, itxuran, hala zen behintzat. Josefinak kontatzen duenez, benetan diruduna emakumea zen,

Etxarriko nagusiaren emaztea, eta hura Urdaingoa zen. Hortik dator izena, eta haiei ordaintzen zieten errenta hilero, irabazien zati bat: "Hilean 200 pezeta ordaintzen ziren. Hori dirutza zen garai hartan. Eta ez zen bizitzeagatik bakarrik, zaindu egiten zioten baserria eta errota guztia".

Hantxe bizi izan da bere bizitza osoan, eta hantxe lan egin du ere Josefinak, eta ez zen lan erraza. 12 urterekin hasi zen arto, gari eta garagar zakuak bizkarrean eramaten, eta errotan egin beharrekoetan laguntzen. "Eta gure aita 8 urterekin egoten zen jada lanean Iturmendiko errotan", zehazten du Josefinak. Artoa, garia eta garagarra ez zituzten haiek hazten, kanpotik ekarri baino. Baserriaren kanpoko horman ikus daitezke ferrak. "Hor lotzen zituzten astoak eta zaldiak. Bestela, bizkarrean zakuak botata etortzen zen jendea Altsasutik", gogoratzen du Josefinak.

Hain zuzen ere, Altsasuko bezero batzuen inguruan anekdota bat kontatzen du, xamurtasunez, Josefinak. Duela urte batzuk etorri omen zitzaizkion Altsasutik eskerrak ematera: "Duela ez asko etorri ziren. Altsasuko andre batek, hiltzen ari zela, esan omen zien bere seme-alabei: 'Joan zaitetze Urdaingoa errotara eskerrak ematera'. Seme-alabek esan zioten ama jada hila zela, baina, edonola ere, etorri egin ziren". Josefinak argi eta garbi dio: "Gure ama oso ausarta zen, oso ona". Esaterako, behin, beste bezero batek zakuak eraman zizkien garau zakuak errotan xehatzeko, baina bidean, karroa zeraman astoa izutu, eta zakuak lurrera erori ziren. "Arto aleak zikin zeuden, baina, hala ere, gure amak onartu egin zizkion", dio urdiaindarrak. Bezero hura gero ezkondu egin zen, eta Iruñera joan zen bizitzera, baina urtero etortzen zen errotara bisita egitera, hil zen arte.

Amari buruz hitz onak besterik ez du Josefinak; miresmena nabari da haren hitzetan. Beste gauza askoren artean, diru kontuetz ari da bere amaren jokaera



### EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea





gogora ekartzen duenean. Izan ere, garai latzak pasa zituzten. "La Urdintarra" errota, eta erro-tarekin batera Josefina bera ere, urteetan zehar gertatu direnen lekuko izan dira. Gogora ekartzen ditu 36ko gerran zehar igarotako komeriak. "Miseria handia zegoen garai hartan", dio. Altsasuko emakumeak esan zion alabari: "Errotakoak eman egiten zigun, dirua izanda ala dirurik gabe, berdin zitzaion". Josefinak dio orain ere badaudela "bazter guztietan miseriak" eta koronabirusaren pandemiak munduan "kaosa" ezarri duela. Baina orduan ere garai latzak zirela gehitzen du. "40 kilo ekartzen baziren, 20 zentimo inguru kobratzen zen, ehotzeagatik". Dena den, dirurik ez bazegoen, ehotako garauaren zati batekin ere ordaindu ohi zen, besterik ez bazegoen.

### Balio anitzeko eraikina

Josefinaren aita 4 urterekin heldu zen "La Urdintarra"-ra, familiarekin batera. Haietako batzuk errotan jarri ziren lanean, garauak ehotzen. Baina hori ez zen etxeak zuen funtzio bakarra, ezta gutxiago ere. Josefinak gogoratzen du kide batzuk lorategia zaintzeko lanetan hasi zirela, lorategi botanikoa zen hartan: "mota guztiko zuhaitzak zeuden, milaka lore, espezie asko... izugarri polita zen eremu guztia". Zuhaitz eta lorategi horiek zaindu egiten zituzten, eta Josefinari ez zaio landareen inguruko miresmena joan. Igartzen da baratzari buruz hitz egiten duenean. Beretzat ez da lana, gustura lantzen baitu lurra. Hainbat landare eta barazki landatzen ditu, eta aise ematen ditu bueltak, fruituak ematen dituzten ikusten. "Jendeak esaten dit esfortzu handia dela baina nik oso gustura egiten dut, denbora-pasa da".

Bi funtzio gutxi balira, hirugarren bat ere bazuen Urdiaingo errota: argindarra sortzea. Errota bera zaharragoa da; XVII. mendetik egon da zutik eraikina, Josefinak kontatzen duen arabera. Baina 1900. urtean eraikinari gehigarri bat egin zioten eta bertan zentral elektriko bat sortu zuten. Han, uraren indarraren laguntzaz baliatzen ziren, garauak xehatzeko egiten zuten antzera, argindarra sortu eta hura ere banatu ahal izateko. Zentralak argindarra helarazten zuen, ez soilik Urdiaingo herrira, baita Iturmendi eta Bakaikuko etxeetara


ere. "Argi txiki-txikia zen sortzen zena, ez gaur egungoa bezalakoa".

Zentralak, kanpoaldetik ikusita behintzat, ez du ematen hori denik. Josefinaren seme batek zaldia zaintzen ditu, eta bertara joaten da jendea zaldi gainean ibiltzera. Horretara joan izan diren askoren artean, bat enpresa elektriko bateko langilea zen. "Horko hori zer da, tren geltokia?", galdetu zion Josefinari. Eta hark erantzun zion: "Ez, zentral elektrikoa da". Harrituta geratu omen zen gizona. "Ea sartu ahal zen galdetu zidan, eta barrura sartu ginenean, txundituta geratu zen bera", azpimarratzen du Josefinak.

Errota ez zen Sakanako bakarra. Josefinak kontatutakoaren arabera, Altsasun ere bazegoen beste bat, gutxienez. Haien herrian errota izanda ere, bezerorik onenak altsasuarrak zirela dio Josefinak. "Altsasuko herri guztia bizi zen nekazaritzatik, denak, eta guregana etortzen ziren". Urdiaindarraren ustez, haiengana joaten ziren bere aitona harria zaintzen lan egiten zuelako: "Belauniko jartzen zen, buruko baten gainean, eta harriari forma eman eta zaindu egiten zuen. Aldea badago harri batekin edo beste batekin xehatzean, emaitza ez da berbera izaten. Kalitatean antzeman daiteke".

Horren luze egon da zutik errota, ezen gauza asko ikusi eta bizi izan dituen martxan egon den bitartean, historian gertatutako gauzak. Haien artean 36ko gerra, eta frankismoa. Josefinaren hitzetan, miseriak. Eta gerra gogora ekartzean, harekin batera, estraperloa. Josefinari ea haiek ere kontrabandoan aritu ziren galdeztean argi eta garbi erantzuten du: "Gosea zegoen". Nola edo hala jan egin behar zuten. "Han etxe ondotik pasatzen den trenetik botatzen zizkiguten zakuak gariz beteta. Eta karretillarik ez genuen, orduan bizkarrean ekartzen genituen honaino", kontatzen du. Handik jasotakoarekin, behar zuenari jaten ematen zitzaion.

Izan ere, Urdiaingo emakumeak kontatzen du garai gogorak ziren haietan errota itxi zietela, eta errotarriak prezintatu zizkietela. "Jendea gosez hiltzen zegoen, eta bien bitartean, guk ezin genuen errotarria martxan jarri eta garia edo artoa xehatu, taloak egiteko bazen ere". 87 urteko emakumearendako ez zeukan inolako zentzurik gertatzen ari zenak. Horregatik, trenetik botatutako zakuak



Errotan lan egin du Josefinak bititza osoan. MUNIA



Errotak bi harri ditu, 'solera' behean eta 'voladora' gainean. MUNIA



Errotak kanpoan lorategi botanikoa izan zuen. MUNIA

isilean ehotzen zituzten. "Noizbait etorri ziren guardia zibilak hona, baina ez zuten ezer susmatu", kontatzen du Josefinak.

Gernikako bonbardaketa ere gogora ekarri du urdiaindarrak. "Gogoratzen naiz behin esan ziotela gure aitari argirik ez emate-

ko gau batean, airez erasoko zigutela uste zutelako. Argirik eman gabe, ez gintuztela ikusiko". Hala egin zuen aitak: "Denak joan ginen egun hartan goiz ohera".

### Toki kuttuna

Josefinarendako, garauak ehotzeko prozesua ez da mekanika hutsa. Beretzat, "oso polita da" errotarria martxan ikustea. Horregatik, tristeia izan zen errotak lan egiteari utzi behar izan zion unea. "Urak pasatzeari utzi zion", kontatzen du Josefinak. Horren "beharezkoa" zen elementuak igarotzeari utzi eta horren kontura ibiltzen zen prozesua geldiarazi behar izan zuten. "Berriro ere hemendik ura pasa dadin nahiko nuke", dio Josefinak. Haren ustez, ibaietako ura ez da zaintzen, eta pena ematen dio zikinkeria ikusteak bere bizitzaren parte izan den toki batean. "Gehiago zaindu behar da", dio Josefinak, naturari erreferentzia eginez.

Errotak garauak ehotzeari utzi zion bezala, zentral elektrikoak ere argindarra sortzeari utzi zion. "Jendea hasi zen plantzak erosten, garbigailuak, eta hala-koak. Eta hemen sortzen genuen argindar kopuruak ezin zituen makina berri horiek guztiak martxan jarri". Horregatik, zentrala geldiaraztea erabaki zuten. Zentralera sartzean gauza guztiak azaltzen ditu, makinatiko elementu bakoitzak zer egiten duen, eta oroitzapenak etortzen zaizkio Josefinari. "Hau oraingoa ere leun dago; oraintxe ibili ahalko litzateke", dio urdiaindarrak.

Lorategi botanikoaren arrastorik ere ez da geratzen gaur egun, horren ordez, baratza dago, eta oilategia. Oiloek eta txakurrek betetzen dute Josefina bizi den parajea betetzen dute, baita zaldiek ere, eta xarma ematen diote. "Oso toki politean bizi naiz", dio berak.

"Hemen orain ongi bizi gara. Nik ez nuke hemendik inora alde egingo", argi uzten du urdiaindarrak. "Iruñean pisu bat, edo etxe bat prest daukadala esanda ere, ni hementxe geratuko nintzateke". Izan ere, bere bititza osoa pasa du Josefinak Urdiaingo erroretxean bizitzen. Batzuetan, uraldiak daudenean, "beldurra" sentitu izan duela kontatzen du; 2019ko uraren goraldiak bertan harrapatuta utzi zituen. Edonola ere, hantxe jarraitzen du bizitzen, eta hil arte bertan geratzeko asmoa du: "Hemen jaio nintzen, eta hemendik eraman naitzateela".

**"JENDEAK ESATEN DIT ESFORTZU HANDIA DELA BAINA NIK OSO GUSTURA EGITEN DUT, DENBORA-PASA DA"**



ASTEKOA

YOLANDA OLASAGARRE

## Euskaldunon nekea

Berriro urrian (irailean) gaude, uda despedituko da, ikasturteari ekinen diogu, oporren bueltako hilabetei hasiera emateko. Uda lasaiago egoteko garaia izaten da, disfrutatzeke garaia, zenbait lizentzia hartzeko garaia eta zenbait zama arintzeko garaia. Zama ari garela, zenbatendako da euskaldun izatea zama. Ruper Ordorikak zioen moduan *Euskaldun izatea zein nekeza den, Hobe nuela hautatzea, Munduko hiritar izatea.*

Zergatik da hain nekeza euskaldun izatea? Gure hizkuntzaren aldarrikapena egiten aritu behar dugulako, etengabe. Nekez erlaxatu gaitezkeelako, inertziak gure inguruko beste hizkuntzen alde egiten duelako (gaztelania, frantsesa, kasu). Elkarrizketetan, geure baitan, zein hizkuntza hautatuko dugun erabaki behar dugulako, behin eta berriz. Horrek sortzen digu sarritan barne gatazka. Barne gatazka horretan euskaldun izatea edo munduko hiritar izatea erabaki behar dugulako. Alegia, maite duzuna eta

zarena zaintzea; baina, era berean, nekagarria dena eta zamatsua. Maitasun-gorrotu harremana esaten zaio horri. Ordorikaren kantak dioena: *Zaindu maite duzun hori. Zaindu gorrotu duzun hori.*

Aurten itzulera berezia da, nork ikusi du horrelakorik? Halere, lanbide honetan urria (iraila) ez dator berrikuntza

handirekin, zaharrak berri datozkigu eta horiekin jarraitu beharko dugu euskaldun izaten jarraitu nahi badugu.

Euskaraldiarekin, laster, hizkuntza ohiturak aldatzeko erronka izanen dugu, eta, horrenbestez, euskararen erabileran urratsak emateko. Izan gaitezen ahozki pazientziadunak euskaraz hain ongi moldatzen ez diren euskaldunekin zein belarriprest izanen direnekin; ez ditzagun lotsarazi; euskaraz aritzera animatu ditzagun, hizkuntza praktikatu ikasten dela esanez... Hori bai, berriro ere nekatu egin beharko dugu emaitza ikusteko.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## HARA ZER DIEN

### Hodei beltzak

#### SASOIA JUBILATUEN ELKARTEA

Iragarria zegoen pandemiaren ondoko "normaltasuna" iristean ekonomiak hartuko zuela lehenetsuna. Une gogorrenetan ere, agintari politikoak ekonomiaren egoera larria aipatu gabe ez ziren hedabideetan agertzen, eta ekonomiak finkatu ditu alarma egoera eta konfinamendutik atera gaituen irizpideak, eta ez osasunak. Munduko ekonomiaren ardura dutenak ez dira gaixotu eta lanean jardun dute, baina ez dute ezer berririk asmatu; azken hamarkadako arazo eta murrizketa sozialei eusten diete, dirudienez.

Eta badakigu gure agintariekin esaten dutena

egiten dutela, nahi dutenean. Baditugu adibideak: PSOEk eskuinerako bidea agertu du pentsionisten aldarrikapenei dagokienez. Berreraikuntza Ekonomikorako Batzordean Unidas Podemos eta EH Bildurekin pentsioak KPIrekin errealizatzeko, gutxieneko pentsioak igotzeko eta iraunkortasun faktorea indargabetzeko konpromisoa adostu ondoren, PSOEk berak baztertu egin zuen adostutakoa.

Toledoko Itunaren batzorde teknikoak ere hasia da lanean, baina hitz jarioetan jasotzen diren asmo onetatik harago, azkeneko hamarkada honetan ezagutu ditugun neurri negatibo guztiei eusten diete.

2011 eta 2013ko pentsio erreformei eutsi nahi diete, 1.200 euroko gutxieneko soldata eta 1.080 euroko gutxieneko pentsioak ez dituzte onartzen, erretiro adina 67 urtetara luzatzen da, pentsioen oinarri arautzailea 25 urtera izan ordez lan-bizitza osora luzatzea ez da baztertzeko.

Europako Estaturu, banku, enpresa handi eta burtsendako argia, lasaitasuna eta poza dakarten erabaki hauek ekaitz bortitza iragartzen diguten hodei beltzak bilakatzen dira guretzat. Pello Solabarriaren esararekin erantzun diegu: "Amets egitea galarazten badigute, loa galaraziko diegu".



**GAURKO (OSTIRALA)  
12:00AK ARTE DUZU  
PARTE HARTZEKO AUKERA**

**URIBE KOSTAKO CASA DE MARINOS HOTELEAN BI GAU  
ETA ERRIGORAKO KAXA BAT IRABAZ DITZAKEZU**

**ONDOREN, BOZKATU GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUNA!**

**WWW.GUAIXE.EUS**

**UDAKO**

**ARGAZKI LEHIAKETA!**

**guaixe**  
SAKANAKO ATEKARIA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

#### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

#### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
info@gkomunikazioa.eus  
Ainhora Etxeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

#### Zuzentzailea:

Idoia Artieda Larrazza

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 3.200

**Erredakzio burua:**  
Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

**Publizitatea:**  
Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

**Erredakzioa:**  
Maider Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

**Maketatzailea:**  
Irene Trecet Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

#### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107 (Faxa)  
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



**Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra**



La próxima,  
en euskera

2020-2021  
IKASTURTEA  
CURSO  
2020-2021

Hurrengoa  
euskaraz!

GOZATU  
EUSKARA!

DISFRUTA EN EL EUSKALTEGI

EUSKALTEGIEI ETA LAGUNTZEI  
BURUZKO INFORMAZIO GUZTIA HEMEN  
TODA LA INFORMACIÓN RELATIVA A  
CENTROS Y SUBVENCIONES A LA  
MATRÍCULA

948 012 012

euskaraikasi.nafarroa.eus  
aprendeusquera.navarra.es  
elaide.eus

BIDEOA IKUSI  
VER VIDEO



Gobierno  
de Navarra  Nafarroako  
Gobernua



ZUBIARTE  
Euskaltegi Publikoa



UDALAK / AYUNTAMIENTOS: ANSOÁIN / ANTSOAIN, AOIZ / AGOITZ, ARANGUREN, AURITZ / BURGUETE, BARAÑAIN, BASABURUA, BERRIOPLANO / BERRIOBEITI, BERRIOZAR, BURLADA / BURLATA, CENDEA DE OLZA / OLTZA ZENDEA, ERROIBAR / VALLE DE ERRO, ESTELLA-LIZARRA, ESTERIBAR, ETXAURI, GALAR, HUARTE / UHARTE, IMOTZ, LIZOÁIN-ARRIASGOITI / LIZOAINIBAR-ARRIASGOITI, LUZAIDE / VALCARLOS, ODIETA, ORKOIEN, PAMPLONA / IRUÑA, PUENTE LA REINA / GARES, ULTZAMA, VALLE DE ARCE / ARTZIBAR, VALLE DE EGÚÉS / EGUESIBAR, VILLAVA / ATARRABIA, ZIZUR MAYOR / ZIZUR NAGUSIA

MANKOMUNITATEAK / MANCOMUNIDADES: IRANZU / IRANTZU, SAKANA, VALDIZARBE / IZARBEIBAR

BATZORDE NAGUSIAK / JUNTAS GENERALES: AEZKOA, RONCAL / ERRONKARI, SALAZAR / ZARAITZU



Ikasgelak, atzera ere, bizitzaz eta jakin-minez beteko dira. UTZITAKOA

# Erronka den ikasturtea

Pandemiak markatutako ikasturtea hastear dago, zalantza eta kezka artean. Urte erdiaren ondoren ikasleak eta irakasleak, atzera ere, aurrez aurre izanen dira geletan. Baina musukoak izanen dira aurpegietan, eta osasun segurtasun neurri zorrotzak

**Eneida C.M. eta Alfredo A.I.** SAKANA Aurreko ikasturtea ikas komunitateko kide guztien memorian iltzatuta geldituko da. Baina hastear dagoen ikasturtea ere ez da ahazteko modukoa izanen, pandemiak baldintzatuta baita-

tor. Gaitza ez hedatzeko hainbat osasun neurri hartu dituzte ikas komunitateek. Horregatik, ikasle eta irakasleak klasean musukoa jantzita ikusiko ditugu. Ikastetxe barruko desplazamenduak guztiz araututa egonen

dira. Gainera, ordutegi jarraitua izanen dute ikasle guztiek, eta, jantokian bazkaldu ondoren, itxi egingen da ikastetxea, ez baita eskolaz kanpoko jarduerarik izanen.

Altsasun gaur hasiko da ikasturtea, astelehenean gainontzeko herrietan. Urdiaingo eskola publikoan irakaslea eta zuzendaria da Iñaki Gorrotxategi Pereda. 30 ikasle dituzte eta, beraz, ikasgeletan ez da ikasle asko pilatuko, "gutxi gorabehera 10eko ratioa dugu". Eskola txikia izanik lasai daude Urdiainen. Irurtzango Atakondoa eskola publikoko zuzendariak esan digunez, 510 bat ikasle izanen dituzte. Andra Mari ikastolako pedagogia zuzendaria da Olaia Martirena Razkin. 435 ikasle ditu ikastolak eta astelehenean bueltatuko dira klasera.

## Klasera

Bai ikasleek bai irakasleak urte erdi eman dute klasean elkarrekin egon gabe. Gorrotxategik esan digunez, "ez dakigu zer opatuko dugun klasera bueltan. Arraroa izan behar da. Batzuek ez gaituzte ezagutzen, irakasle gehienak berriak garelako". Martirenak uste du "jendea bueltatzeko gogoz dagoela". Urdiainen ari den irakasleak gaineratu duenez, "beraiek Google classroom eta halakoekin ibili dira eta, orain, berriro buelta klasera. Batzuk gogoz etorriko dira, besteak ez". Atakondoko zuzendariak uste duenez, "denon gogoan dago berriz elkar ikustea, eta hezkuntza den bide liluragarri hau utzi genuen puntutik aurrera eramatea". Ikastolakoak gaineratu duenez, bueltarako "gogoz eta urduri" daudela nabarmendu du, "ez dakigu zer etorriko den, nola hasiko garen. Joanen gara behar diren doiketak egiten".

Ikasleek ikasketa ohitura berreskuratzeari galdetuta, Martiarenak esan duenez, "denok pazientzia eta xuabe-xuabe hasiko gara, halabeharrez. Ikasleak nola etorriko diren ere ez dakigu. Emozionalki ere zaindu behar dira". Irakasleek ere egokitzapena beharko dutela gaineratu du.

Zamargilearen iritziz, "orain presentzialtasunaren bide hori ibiltzea tokatzen zaigu, baina oso ezaugarri desberdinekin. Aplikatu behar ditugun kontingentzia planek marrazten duten panorama da behar bada irakas-kuntza berri batena".

Gorrotxategik gaineratu duenez, "arraroa izanen da, askok galduta izanen dutelako ohitura". Egokitzapenari "denbora gehiago eman beharko diogu. Normalean, lehenengo egunean gelako arauak eta halakoak lantzen dira. Eta aurten kontingentzia plana gehitu behar diogu: zer egin dezaket, zer ez, nola..."

## Irakasleez

Urdiainen berez bost irakasle dira, eta gero beste eskoletatik hiru irakasle joaten zaizkie. Ikastolan 47 irakasle, laguntzaile eta

## "EDOZEIN EGOERA BERRIREN AURREAN URDURITASUN PIXKA BAT IZATEA NORMALA IRUDITZEN ZAIT"

hezitzaile daude. Azkena atzo iritsi zen. Atakondoa 64 irakasle daude. Zamargileak gaztigatu duenez, ikasturtero kontratazioekin gauza bera gertatzen da: "oinarri bat kontratatuta egoten da eta hasieran beti egoten dira jardunaldi murrizketa eskaerak eta bestelakoak. Horiek plantilla doitzera behartzen dute. Azken momentuan, denek batera". Horregatik, Irurtzunen falta zaizkien irakasle gutxi horien zain daude.

Haur Hezkuntzan gelako 25 ikasle izatetik 20 izatera pasa du ratioa Hezkuntza Departamentuak. Hala gertatu den ikastetxeetan gela gehiago sortuko dira eta haietara irakasle gehiago joanen da. Ez da hori ez Irurtzango ezta Urdiaingo eskolen kasua. Andra Mari ikastolak 20 ikasle baino gehiagoko bi gela zituen. Martiarenak azaldu duenez, "gela horiek zatitu ditugu, baliabideak eman dizkigutelako". Bi irakasle berri hartu dituzte.

Bestetik, Lehen Hezkuntzan gelako 20 ikasleko ratiotik pasatzean departamentuak ikastetxeetara errefortzua bidaltzen du: irakasle plaza oso baten herena. Horretaz aparte, jardunaldi jarraitua ezarri du Hezkuntza Departamentuak ikastetxe guztiendako. Irurtzango eta Urdiaingo eskolak eta Andra Mari ikastolak ordutegi hori zuten, ez da aldaketarik izanen.

Irakasleek hastekoa den ikasturteari begira dituzten sentipenez galdetuta, "erronkari heltzeko ilusioz, prest" daudela jakinarazi du Martiarenak. Gorrotxategik esan duenez, "ez zaigu inori gustatu etxean egotea, jendearekin harremanik izan gabe. Ez da gauza bera".

Pertsonalki ikasturte berriari nola heldu dioten galdetuta, Gorrotxategik nabarmendu du berarendako dena dela berria, ikastetxea eta zuzendari ardura bera. Ahal duen moduan egokitzten ari dela jakinarazi digu. Zamargileak "naturalak" diren sentipenak bi taldetan sailkatu ditu. "Edozein egoera berriren aurrean urduritasun pixka bat izatea normala iruditzen zait. Gertatuko denaren inguruko espektatiba, nola joanen diren gauzak".

## Telematikoa

Tele-irakaskuntza ezarri zen aurreko ikasturtea despeditzeko. Gorrotxategiren iritziz, "asko nabarmendu da arrakala digitala.

Iñigo Aritza Ikastolak 2020-21 ikasturtean lan egingo duen **ZAINTZAILEA** behar du.

Lan eskaintza ikasturte osorako da, lanaldi partzialean.

### ESKATZEN DA:

- \* Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arretako teknikari titulua edo baliokidea izatea.
- \* EGA edo baliokidea.

### BALORATUKO DA:

- \* Antzeko lanpostuetan esperientzia izatea.
- \* Taldean lan egiteko gaitasuna.
- \* Ikastolen mugimendua ezagutzea.

CURRICULUMAK BIDALTZEKO EPEA IRAILAK 8.  
[curriculumak@inigoaritzza.eus](mailto:curriculumak@inigoaritzza.eus)



Klasean baino gehiago kostatzen zitzaizen batzuei gauzak jarraitzea: ordenagailurik ez zutelako, etxean ordenagailu bakarra zeukatela eta hiru anai-arreba zirelako..."

Martiarenak nabarmendu du "desberdina" izan dela. "Lehen Hezkuntzako 5. mailatik aurrera errazago egin zaigu. Adibidez, DBHn ikasle guztiak ordenagailu propioa zuten eta horretan arituak ziren. Bosgarren mailatik gorakoak trebeziak bestelakoak dira, baina maila horretatik behera zailxeagoa da. Gurasoen, familien inplikazioa, orokorrean behar izan dugu orokorrean". Gorrotxategik aitortu duenez, "jende askok lan handia egin behar izan du: irakasleek, gurasoek... Haur zaharrenek bere kabuz eginen dituzte gauzak, baina txikiak gurasoen laguntza behar dute".

Tele-irakaskuntzari bi alde ikusten dizkio Zamargileak. "Positiboen artean, denok egokitzea, ikastera behartzera, pixka bat aldatzera behartu gaituela. Hori, ona da. Gainera, ikasle, irakasle eta familiek teknologia eta bitarteko berriez asko ikastea ekarri du. Negatiboena da aurrez aurrekoaren beroa galdu dela. Irakaskuntza berorik gabe ez da irakaskuntza". Alde positiboari begira, Martiarenak nabarmendu duenez, "irakasleen gaitasun digitala maila altukoa da orokorrean. Ez zuenak ere, laguntza eskatuz, lortu du. Ikasturte berrira begira prestatuagoak sentitzen gara, lasaitasun pixka bat gehiago".

#### Gurasoak

Zamargileak esan digunez, "badaude gauza batzuk guretzako ezinbestekoak direnak irakaskuntzan, eskola batean, eta horren inguruan informazio falta izugarria sumatzen dugu, zalantza asko. Badira zalantza batzuk departamentutik argitzen ez dizkigutenak. Guk gure lana behar bezala egiteko jakiteko gure beharra dugu. Eta, bestalde, badugu familien eskaera. Hedabideen bidez hainbeste gauza jaso ondoren, familiek jakin nahi dute nola izanen den. Guk geuk ere ez dakigu oso erantzuten hainbeste gauza".

Gorrotxategik azaldu duenez, "gaur bildu behar gara haiekin kontingentzia arloan zer egin behar dugun azaltzeko. Orduan jasoko ditugu haien iritzia eta sentsazioak". Martiarenak jaki-



Ikasle eta irakasleei PCR probak eginen dizkieten ez dakite ikastetxeetan. UTZITAKOIA

narazi digunez, junta txikian dauden gurasoekin harremana izan dute. "Urduritasuna" sentitzen dute, "baina gogoia ere bai haurrak gelakoekin, beste herrietakoekin aritzeko". Ikasturte hasieraren inguruko gurasoen galderak izan dituztela ere jakinarazi du.

Gauza bera Zamargileak. Atakondoakoei e-posta bidez bidali diete familiei aurreneko informazioak. Gainera, kontingentzia planaren eta antolakuntza berriaren orokortasunen berri ematen duen bideoa egin eta zabaldu dute. "Horren bidez zalantza handienak erantzuten saiatu gara", argitu du Zamargileak. "Bestalde, hiru urteko, ikasle berrien familiekin ere gaurtik hasita kontaktua izan behar dugu, heldu den hasten hasiko baitute egokitzapen hila-betea".

#### Ikastetxeaz

Pandemiak ikastetxeak ere aldatu ditu. Atakondoan alde aurretik zituzten espazioekin moldatu dira. "Bikoizketak egin ahal izateko, zuten eginkizuna aldatu behar izan diegu gela ba-

tzuei. Esaterako, liburutegia gela bihurtu da". Urdiaingo eskolan ez dituzte gela gehiago sortu behar izan. "Hemen muga gehienak jada jarrita daude. Hiru gela ditugu eta geletan ez dugu asko egin behar izan".

Martiarenak azaldu duenez, Haur Hezkuntzan bi geletatik lau atera dituzte. Garai batean botatako pareta bat atzera jaso behar izan dute. Eta Lehen Hezkuntzako ingeles gela zena Haur Hezkuntzako gela izatera pasa da. Izan ere, ikastetxeetako gela espezifikoak, komunak direnak, ezin baitira horrela erabili. Gai nontzeko gelak bere horretan utzi dituzte.

Ikastetxeetarako sarrera kontrolatua izan behar du. Ikastolak pertsona bat jarriko du sarreran eta patioko zaintza ordu gehiago izanen dira ere. Zamargileak gaineratu duenez,

### "IKASTURTE BERRIRA BEGIRA PRESTATUAGOAK SENTITZEN GARA, PIXKA BAT LASAIAGO"

"patio txanda gehiago egotearekin zaintza txanda gehiago egin beharko dira. Berez ikasturteak irakasleriari maila askotan exijentzia handiagoa eskatuko dio. Askoz denbora gutxiago izanen dugu eskolak prestatzeko, familiekin egoteko, trebatzeko eta abar". Irurtzango eskolaren funtzionamenduan aldaketa handienetako bat izanen da familiek ezin izanen dutela ikastetxera sartu.

#### Garbiketa

Urdiainen indartu eginen dute eta egunero beste behin sartuko dira garbitzera eta ikastolako garbitzaileak ordu gehiago ariko dira lanean. "Goizez bat egonen da". Klaseak bukatzean irakasleek mahaia desinfectatuko dituzte, erabiltzen dituzten materialak desinfectatuta utziko dute. Irurtzunen garbiketa zerbitzua handitu dute. "Lehen ez genuen goizeko txandarik. Komunak garbituko dituzte. Egunean hirutan garbitzea agindu baitute. Psikomotrizitate gela ere garbituko eta desinfectatuko dute, hala bitan erabiltzeko aukera izateko".

## Otsaportillon estatu kolpeko biktimak izanen dituzte goioan

Biktimentako egia, memoria, justizia eta erreparazioa. Lau ardatz horiek ditu Otsaportilloko leze inguruan igandean 12:30ean eginen den ekitaldiak. 12:00etan meza dago. Bertan goioan izanen dituzte 1936ko estatu kolpearen ondorioz eraildako guztiak. COVID-19 gaixotasunak eragindako osasun krisia dela-eta osasun agintariei ezarritako prebentzio neurriak errespetatu beharko dira ekitaldian. Hala jakinarazi dute haren antolatzaile diren Urdiaingo eta Altsasuko udalak. Izan ere, ibarreko udalak 2017an lankidetzat hitzarmena sinatu zuten eta horren arabera, urtero bi udal arduratzen dira memoria ekitaldia antolatzeaz.

## Ziordiko Udalak festak bertan behera utzi ditu

Baina egun horiek baliatuko ditu Toki Eder pilotalekuan egindako lanak mustutzeko. Horretarako, pilotari profesionalen jaialdia antolatu du (ikus 20. orria). Olatz Irizar Martinez alkateak azaldu digunez, "eskaintza ona eta astelehenean zelako onartu genuen, jende pilaketak eragozteko egun egokia delako". Gainera, "festarik ez izatean alternatibarik gabe gelditzen diren adinekoendako eskaintza egokia da". Bestela, festak beharko luketen egunetan bi ekitaldi ofizial izanen dira bakarrik, biak ere asteartean: joan den urtean jaiotako zior-diarrei herriko ttattarra ematea eta bi adinduri aitortza egitea.

LIDIA MARTÍNEZ AKADEMIA

MATEMATIKA  
FISIKA  
KIMIKA  
NATUR ZIENTZIAK  
GAZTELANIA

MAILA GUZTIAK

BAKEA 1 · ALTSASU · 626 084 133  
www.lidiamartinez.es

kaxeta LIBURUDENDA

klik&fan!

Eskatu behar duzun ikas materiala WhatsApp eta gu arduratuko gara guztiaz!

fotokopia@kaxeta.net  
628.542.519  
948.460.477

Liburunda Alsasua  
liburunda@hotmail.es

Liburunda nº 6. 948 46 92 01

Ikastetxerako materiala hemen

TXARTEL TX 20 urteurrena

INPRIMATZE DIGITALA  
KOPIA-DENDAKO ZERBITZUA  
NEURRI HANDIKO INPRIMATZEAK

www.txartel.net  
948 564 002  
txartel@txartel.net



# Gogor, langileen defentsa antolatua

**IDOIA TORRENTE** GOGOR TALDEKO KIDEA

Langileon bizi baldintzak hobetzeko sortutako taldeak "Gogor" izena du. Lakuntzako Idoia Torrente bertako kidea da

**Rebeka Mendoza** SAKANA

**Zer da "Gogor" mugimendua?**

"Gogor" Sakana eta Larraun inguruan sortutako mugimendua da. Langileen defentsa antolatzeko helburua du, eta bere lan ildoak horretara bideratuta egongo dira.

**Nola sortu zen mugimendua? Zergatik?**

Konfinamendu garaian, asfaltatik antzematen genuen beharra errealitate bihurtzen hasi zen. Larraun eta Sakana inguruko kide batzuk elkartu ginen, dagoeneko hainbat dinamikan genbiltzanak. Irurtzunen, Gazte Asanbladak sortutako "Iatzar hadi" dinamika martxan zegoen. Aldi berean, Lekunberriko Printza Gaztetxeak Suprin irratia sortu zuen. Bien bitartean, Sakanan gazte ikasle abertzaleak eta Gazte Koordinadora Sozialista testigantza kanpaina egiten ari ziren.

Ordurako, Gazte Koordinadora Sozialistatik "burgesiaren ofentsiba gelditu" dinamika lantzen ari ginen. Hari horretatik tiraka, "Gogor, langileen defentsa antolatua" sortzea erabaki genuen. Sistema kapitalistak eragindako testuinguru honetan, eta gaur egun krisi eta proletarizazio fase bat etorriko dela nabaria denez, beharrezkoa ikusten genuen langileak antolatzea eta defentsa egitea.

**Zein da zuen helburua?**

Sakana eta Larraungo jendearengana iristea optika proletario batetik lan eginez eta, azken finean, hemengo eta inguruko langileon bizi baldintzak hobetuz. Horrela, gutxinaka-gutxinaka, burgesiaren ofentsiba ahultzen joango gara. Azken finean, gure helburu orokorra gure sistema propio bat eraikitzea da, berdintasunean oinarrituko dena.

**Duela zenbat sortu zenuten?**



Idoia Torrente, "Gogor" taldeko kidea. REBEKA



Elikagai eta oinarritzko produktuen bilketa Irurtzunen. REBEKA

Konfinamenduan gure artean hitz egiten hasi ginen, elkarrekin biltzea ezinezkoa izan arren. Eta ateratzeko aukera izaten hasi ginenean, ideiarri forma ematen hasi ginen.

**Sakanara iritsi da, baina herri guztietako kideak daude?**

Momentuz ez gaude Sakanako herri guztietan, gure helburua hori izango litzatekeen arren. Zergatik? Ez dugulako herri guztietara ailegatzeko gaitasunik, baina gutxinaka lortu nahiko genuke. Oraingo Arakilen, Irurtzunen, Lakuntzan, Arbizun eta Etxarri Aranatzengau. Larraun ibarreko herri batzuetaz gain, noski.

**Zenbat kide zarete?**

Oraintxe bertan ez dakit zehazki zenbat kide garen. Hala ere, bi partaide mota bereizi behar ditugu: alde batetik, Gogorreko kideak eta, beste aldetik, Gogor barruan dagoen boluntario sareko kideak, geroz eta gehiago direnak. Pixkanaka-pixkanaka hazten goaz.

**Gazteak zarete gehienak?**

Orokorrean, denak gazteak gara Gogorren, baina boluntario sarean helduagoa den jendea ere badago. Haike ere, boluntario bezala, hainbat modutan laguntzen dute.

**Zeintzuk dira zuen lan ildoak?**

Lau dira. Batetik, elikagai eta oinarritzko produktuen bankua: proletarioaren bertako familia kolpatuenei baliabide horiek bermatuko dizkiegu, langile elkartasunaren forma batzuk esperimentatzen hasiarekin batera. Bestetik, testigantza kanpaina: proletarioaren bizi dituen arazoekin berri edukiko dugu, salatze eta interbentzio eremuak definitzeko asmoz. Lan arloarekin, etxebizitzarekin, indarkeria matxistarekin edota kontrol sozialarekin lotutako zerbaite baldin baduzu jarri gurekin harremanetan.

Horrekin batera, askatasun politikoen defentsa: egun bizi dugun bezalako salbuespen egoeretan jardun politikoa aritu ahal izateko lan egingo dugu. Eta, azkenik, polizia jazarpenaren aurrean aholkularitza: errepresioarekin lotutako kasuen aurrean aholkularitza emango dugu, edozein kide izan dezakeen arazo edo zalantza konpontzearekin batera.

Momentuz, elikagai eta oinarritzko produktuen bankuarekin

lanean gaude, eta bertan gure helburua hainbat familia eta kide laguntzea da, eta boluntarioekin lanketa bat egitea. Familiarekin eta orokorrean herriko jendearekin lan egin nahi dugu, elkartasunaren bidez beste modu batean lan egin daitekeela erakusteko.

**Nola egin zaitezke boluntario? Zer esan nahi du Gogorreko boluntario izateak?**

Hainbat modu daude boluntario izateko. Lehenbizi, gurekin harremanetan jarri beharko zinateke, emailaz, telefonoz, edota larunbatetako postuetan bertan galdetuz. Ondoren, boluntarioei hasieran prestatu ditugun bi programak azaltzen dizkiegu. Alde batetik, *Gogor langileen defentsa* antolatutako programa eta, beste alde batetik, zehazki boluntarioena den programa: *norbanakotik kolektibora* izenokoa. Bertan, gure helburua eta gure lana zein diren azaltzen dugu, gure proposamen politikoarekin batera.

**Jendeak boluntario izaten parte har dezake, ezta?**

Bai, edo Gogorreko kide izaten. Zehaztasun gehiago jakin nahi izatekotan, jar daitezela gurekin harremanetan.

**Hilabete hauetan, lortu duzue zuen helburua? Beharbada oraindik oso goiz da, ezta?**

Egia esan, oso goiz dela aitortu behar dut. Oraindik lanean gaude, baina harrera ona jaso dugu, eta gure helburua betetzen ari garela esan dezakegu. Jende askorengana iritsi gara. Gainera, jendeak asko eskertzen digu gure lana.

**Jende asko lagundu duzue?**

Momentuz, sortak banatzen, 60 pertsonarekin ari gara lanean, elikagai eta produktuak banatzen, eta, gainera, 50 pertsona ditugu itxaron zerrandan. Oraindik ez daukagu gaitasun nahikorik guztien beharrari erantzuteko, baina pitteka gaitasuna handitzen goaz. Jartzen ditugun postuetan, larunbat goizetan, jendeak bere ekarpena egiten du, eta asko galdetzen digute. Horren erakuslea da gero eta jende gehiago deitzen ari dela boluntario izateko.

**Noiz eta non jartzen dituzue postuak?**

Gutxi gorabehera, 10:00etatik 13:30era arte jartzen ditugu, nahiz eta herriaren arabera ordutegia alda daitekeen. Denden aurrean jartzen gara, eta jendeak, beharren arabera, produktuak ekar-



tzen dizkigu. Oraingoz, Lekunberrin, Irurtzunen, Lakuntzan eta Etxarri Aranatzan gaude.

### Zein elikagai eraman daitezke bertara?

Jasotzen ditugun elikagaiak hauek dira: arroza, dilistak, txitxirioak, babarrunak, pasta, esnea, oliba olio, galletak (Maria), tomatea, patatak, ogi txigortua, kakaoa, pixoihalak, tanpoiak, konpresak, komuneko papera...

Elikagai horiekin sortak osatzen ditugu. Horretaz gain, sortak bermatu ahal izateko beste kanpaina bat bideratu dugu. "Hamar euroko edo +" kanpaina da, bertan jendeak nahi duen adina ematen digu. Helburu horrekin, kontu korronte bat sortu genuen. Horrela, larunbat guztietan bildutakoa aldakorra denez, gutxieneko sorta batzuk ziurtatzen ditugu.

### Larunbatero biltzen zarete?

Bai, larunbatero biltzen gara postuetan. Gero, Lekunberriko Printza Gaztetxera eramaten ditugu sortza guztiak, bertan dugu eta biltegia. Normalean, ostegunetan hilabete osorako loteak familiei banatzen dizkiegu.

### Noiz hasi zineten loteak banatzen?

Konfinamenduan hasi ginen familiekin hitz egiten, eta pitteka batzuk deitzen hasi ziren. Gerora, haiek gure berri eman zuten biztanleriaren artean. Jende gehiagorengana iritsi garen neurrian, familia gehiagok deitu dute.

### Oraindik ahal duzuen guztia jarraituko duzue, ezta?

Bai, gure ideia jarraitzea da. Alde batetik, elikagai bankuarekin jarraituz eta taldeko beste lan lerro batzuk irekiz. Horretarako, alde batetik, familiekin, eta bestetik, boluntarioekin lan egiten dugu. Familia askotako kideak boluntario egiten direnez, haiekin lanean jarraitzen dugu.

### Bukatzeko, zer egin dezake jendeak zuen ekintzen berri izateko?

Sare sozialetan jarrai ditzakete gure ekintzak: Twitterren @GogorLangile eta Instagramen @gogorlangile profiletan gaude. Gainera, gurekin harremanetan jartzeko emaila (gogorlangile@gmail.com) eta telefono zenbakia dugu: 658 603 851. Bertara deitu daiteke sortak jasotzeko, boluntario izateko edota gure taldearen kide izateko. Sakanadar guztiak animatzen ditugu gurekin lan egitera! Eutsi Gogor!



Arruazuko ikuspegia Aralarko santutegitik.

# Lau parte hartze prozesutarako laguntzak

Arakilgo, Arruazuko eta Lakuntzako udalek eta Sakanako Mankomunitateak sustatuko dituzte. Horiek martxan jartzeko, 9.710,38 euro jasoko dituzte guztira. Aurrekontu Egonkortasun Legeagatik Arruazuk laguntzari uko egingen dio

### Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Herritarren parte-hartzea bultzatu eta sustatzeko proiektuak garatuko dituzte ibarreko lau erakundek. Horiek aurrera egiteko Nafarroako Gobernuko Lehendakartzako eta Gobernu Irekiko zuzendari nagusiak emandako dirulaguntza jasoko dute.

**Arakilgo Udalak** ibarraren beharren diagnosis egin eta etorkizuneko erronkak zehazteko 4.415,39 euro jaso ditu. Oihana Olaberria Jaka alkateak azaldu digunez, "parte hartze prozesuaren bidez, jendearen iritzia jakinda, Arakilen beharrak ikusi eta etorkizunerako norabidea eman nahi genuen". Olaberriak gaineratu duenez, "prozesua

martxoan hastekoa zen, baina pandemiarekin bertan behera gelditu zen. Heldu den astean dugun bileran erabakiko dugu aurten hasi edo heldu den urterako utzi".

### Arruazuren uko egitea

Arruazuko Udalak herriari buruzko plan estrategikoa egiteko parte hartze prozesua sustatuko du. Horretarako, gobernuaren 3.836,01 euroko dirulaguntza du. Gorka Ovejero Ganboa alkateak jakinarazi duenez, "plan estrategikoa heldu den urteraino atzeratu dugu gutxienez. Iazko kontuetan 3.000 euroko deskoardatzea izan genuen eta gastua 20.000 eurotan handiagoa izan

zen". Ovejerok azaldu duenez, "gure kontuetan diru nahikotxo dugun arren, austerizidiodiak behartu egiten gaitu 'doikuntzak' egin eta inbertsioetan eta proiektuetan murrizketak egitera". Alkatea Aurrekontuen Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Legeaz ari da, administrazioei dirua erabiltzeko mugak ezarri zizkienaz. Arrazoi horregatik Arruazun aurten ez dute plan estrategikorik egingen. Bestetik, Ovejero kexu da jasotako laguntzarekin: "gure plan estrategikoa egiteko 15.000 euro bideratu behar genuen eta dirulaguntza % 50etik %80ra izanen zela espero genuen. Baina eman diguten laguntza negargarria da

eta, ofizialki, aurten uko egin diogu dirulaguntzari".

**Lakuntzako Udalak**, berriz, herritarren parte-hartzearekin mugikortasun plana egin nahi du. Parte-hartze dinamikak sustatzeko gobernuaren 1.149,5 euro jasoko ditu. Patxi Xabier Razkin Sagastibeltza alkateak azaldu duenez, "batetik, lakuntzarren parte-hartzearen bidez pertsonen eta ibilgailuen arteko 'gatazka' guneak identifikatu nahi ditugu. Bestetik, herriaren espazio gehiago oinezkoendako bihurtu behar diren edo ez aztertuko dugu parte hartze dinamikaren bidez. Horrekin batera, oinezkoendako puntu beltzak izan daitezkeenak ere identifikatu nahi dituzte, espaloiak eta halakoak. Azkenik, Lakuntza irisgarriagoa lortzea oztopatzen duten puntu beltzak ere identifikatuko ditugu, ondoren neurriak hartu ahal izateko". Parte-hartze prozesua irailean eta lastailean egingen dela aurreratu du.

Azkenik, **Sakanako Mankomunitateko** Hondakin Bilketa Zerbitzuak saltokiei begirako "Zero hondakinak" marka sustatu nahi du. Zerbitzuko arduradun Olatz Garde Mazkianek azaldu duenez, "zero zaborrerako Sakanako bidean denda eta establezimenduen laguntza jaso nahi dugu. Haien aldetik ekarpenak eta hobekuntzak jaso nahi ditugu gero marka sortzeko". Gardek gaineratu duenez, "markarekin ikusarazi nahi dugu helburu horretan laguntzen duten establezimenduak direla eta, bestetik, zero zabor ideia herritarren artean zabaltzeko bidea direlako". Sakanako Mankomunitateak parte hartze prozesua aurten edo heldu den urtean egingen duten zehazteko dute oraindik.

## 24.360 kilo artile jasoak

Artaldea duten 31 sakandar Arbizuko transferentzia gunetik pasa ziren ostegunean eta ostiralean. Haiek eramandako 24.360 kilo artilerekin bi gabarra bete eta Artaxoara eraman zituzten, konposta egiteko egituratzaile gisa erabili dute. Lehen bilketak izandako emaitzarekin "pozik" daude mankomunitateko arduradunak.



UTZITAKOIA



Altsasu: 948 563 822 (denda) | 948 467 153 (lantegia)  
Etxarri Aranatz: 948 460 988 | Urdiain: 948 563 763





Aurten ez da ez etxajurik piztuko ez bestelako ospakizun ofizialik izanen. ARTXIBOA

## Festarik ez, gaitzaren kontrako neurri zorrotzak

COVID-19 gaitza ez zabaltzeko eta jende pilaketarik ez sortzeko ezin izanen dira ospakizunak, bazkariak, herri bazkariak egin, ezta txosnak jarri ere. Bestalde, Sarek jakinarazi du kontzentrazioa deituko duela soilik

### ALTSASU

Altsasuko festak hilaren 11 eta 15 bitartean izan beharko lirake, baina COVID-19 pandemia dela-eta, udalak bertan behera utzi ditu. Gainera, arau bereziak onartu ditu egun horietarako. Haien helburua da jendea pilotzea dakarten jai ekitaldiak saihestea, beti ere, gaitzaren hedapena prebenitzeko neurri gisa. Horrega-

tik, aipatu egunetan ez dira egingo gizarte kontzentrazioko ospakizunak, bazkariak, herri bazkariak, ez eta txosnak, edaria edo elikagaiak zerbitzatzeko kanpoko barrak eta karpak eta azoka atrakzioak espazio publikoetan.

Udalak gogorarazi du Nafarroako Gobernuak gazteen aisialdiko lokaletako jardura eten

zuela eta ezin direla halakoak erabili. Tabernei, kafetegiei, jatetxeei, taberna bereziei, jolas aretoei eta joko aretoei dagokienez, irailaren 11tik 15era 00:00etan itxi behar dira, ixteko ordutegi horretan husteko aldia sartu gabe. Bestalde, ostalariek, baimendutako terrazetan zerbitzatu dezakete soilik, adierazitako baldintzak betez. Udalak ez du

kanpoko barrarik baimendu, eta ezin dute kalera musikarik atera. Gainera, ostalaritza establezimenduetan edukiera errespetatu beharko da, eta nahitaezkoa izanen da maskara erabiltzea, kontsumitzen ari denean izan ezik. Gastronomía elkarteei dagokionez, 00:00etatik 06:00etara erabili gabe egon behar dute.

Altsasuko Udalak herritar guztiei dei egin die "espazio itxieta-ko ospakizun, festa, bilera edo gizarte topaketa pribatuak murrizteko.

### Presoen aldeko aldarrikapena

Sare herritarrak azaldu duenez, "jaiei loturik beti egin dira aldarrikapenak. Aurten, ordea, egoeraren larritasuna ikusirik ez da festarik izanen. Eta, beraz, bertan behera gelditu da urteroko presoen aldeko lehen eguneko bazkaria. Gure herriarekiko arduratsua gara, eta ulertzen dugu gaur egun festak ez direla lehentasuna". Ohar horrekin Sarek argi utzi nahi du berak ez duela egin Whatsapp bidez 11rako zabaldu den presoen aldeko bazkari deialdia.

Sarekideek adierazi dutenez, "lehentasuna da aldarrikapenak egiten jarraitzea. Kartzeletako egoera okertzen dabil astero. Dagoeneko bisean biseko bisitak bertan behera gelditu dira kartzela batzuetan". Altsasuko Sarek kontzentrazioa du irailaren 12rako, 12:30ean, Iortia kultur guneko zabalgunean.

## Altsasuko auziko batzuk etxean, besteak bisitarik gabe

Espainiako Espetxe Zaintzako Idazkaritza Nagusiak bertan behera utzi ditu senideen eta lagunuen aurrez aurreko bisitak edo bisean bisekoak. COVID-19 gaitza kartzeletan ez sartzeko neurri gisa aurkeztu dute erabakia, eta epidemiologia datuetan oinarrituta hartu dute erabakia. Agorriaren 25ean jakinarazi zuten neurriak Arabako Zaballa espetxeari eragiten dio besteak beste, hau da, Altsasuko auziagatik Jonan eta Julen preso dauden kartzelari. Jakinarazi dutenez, hiru asterako da neurria. Epe horretan, aurrez aurreko bisiten ordez, kristala tartean den mintzatokietako bisitak egin beharko dira (40 minutu). Gainera, bideo deiak ugaritzeko asmoa ere adierazi du.

Bestalde, hirugarren graduan dauden eta astegunetan espetxera lotara joaten ziren Adurrek, Jokinek eta Oihane, joan den astetik, etxean egiten dute lo. COVID-19a atzemateko proba egin zieten Zaballako espetxean. Negatiboa eman zuten eta 3. graduan dauden eta negatibo eman zuten guztiak etxera bidali zituen zuzendaritzak. Altsasuko Gurasoak taldeak jakinarazi duenez, hiru presoendako zaintza edo eskumuturreko telematikoa eskatu dute, kartzelara lotara buel-tatu beharrik ez izateko.

### DUELA 25 URTE...



## Berreskuratu eta 1984az geroztik dantzaten da

Ihabardarrek Anjel eta Agustina Irurtzun eta Ortzadar dantza taldea omendu zituzten festetan. Ingurutxo bizirik mantendu eta indartzen lagundu zutenei ere eskerrak eman zizkieten. 1925ean utzi omen zioten ihabardarrek ingurutxo dantzatzeari. Ingurutxo berreskuratzeko ahaleginean, anai-arrebek lagundu zioten Iruñeko Ortzadar dantza taldeari. Ondorioz, 1984an berriro dantzatu zen dantza.

## Errepresioaren kontra "antolaketa eta borroka"

Errepresioaren kontrako borrokaren zilegitasuna eta beharrezkotasuna aldarrikatu ziren Ospa Egunean

### ALTSASU

Ospa mugimenduak larunbatean adierazi zuenez, "okupazio indarren erasoetatik defendatzeko behar ezinbestekoa da errepresioaren kontrako mugimendua". Ospako kideek beste behin errepikatu zuten, "ofentsiba kapitalista baten testuinguruan errepresioaren kontrako mugimendua indartzeko garaia da. Errepresioaren aurrean elkartasuna adieraziz, elkar babestuz, errepresio indarrak desobedituz, zirikatuz, autodefentsa eraikiz, saretuz...". Horretarako, ezin-



Ospa eguneko manifestazioa.

bestekotzat jo zituzten "antolaketa eta borroka".

Mugimendutik aitortu zuten, "errepresio indarrek funtzio sozial garrantzitsua dute" gizartean. "Kapitalismoak galbidera daraman gizarte hau organismo osasuntsu batean bilakatu nahi duen espresio borrokariarekin akabatzen dute errepresio birusek". Gizarte "osasuntsu" baten parte izan nahi zutela adierazi zuten Ospako kideek. "Horretarako, ezinbestekoa da izanen da birus horren-gandik defendatzeko mekanismoak sortzen joatea".

Bestetik, larunbateko Ospa Egunaren kontura sortutako giroa dela eta, Altsasuko alkate Javier Ollo Martinezek jakinarazi zuen sare sozialen bidez eskuin muturreko kideen mehatzuko mezuak jaso zituela.





Iturmendiko udaletxea.

## Gazte talde batek hartuko du udalaren ardura

Joan den urteko udal hauteskundeetan ez zen udala berri eta aurrekoa jardunean aritu da

### ITURMENDI

Herriaren erdialdeko lanak despeditu eta gero iturmendiarrak batzarrera deitzeko asmoa zuen jarduneko alkate Victoriano Gabirondo Lanzek. Udal kontuen berri emateaz aparte, egungo zinegotziei lekukoa hartu, eta udaleko kudeaketa batzordea osatzeko gutxienez bost boluntario behar zirela azaltzekoa zen Gabirondo. Baina ez da batzarra deitu beharrik izan. Kuadrilla bateko zazpi gaztek beraien burua aurkeztu zuten udalaren ardura hartzeko.

Iturmendiko Udalaren kudeaketa batzordea osatuko dute: Imanol Arbizu Perpiña, Javier Beraza Lanz, Pablo Galarza Fernandez, Mikel Galarza Maiza, Iñaki Lizarraga Madinabeitia, Mikel Lopez de Zubiria Gabirondo eta Borja Martinez de Ordoñana Lanz. Haien izen-abizenen berri Nafarroako Gobernuari

jakinarazi dizkie udalak. Gabirondok azaldu digunez, tramiteak direla-eta iraila pasako da haiek izendatzerako.

### Igogailua udaletxean

Udaletxea berri zenean igogailua jartzeko tokia prest utzi zen, baina igogailua jartzeko nahikoa dirurik ez du izan orain arte udalak. Horretarako, 15.000 euro inguru bideratuko du. Bestetik, udaletxe sarreran dagoen arkitektura oztopo bat ere kenduko du, herriaren etxea irisgarria bihurtzeko.

Bestetik, mediku kontsultategiko leihoak aldatuko ditu. Izan ere, 1974ko eraikinak jatorrizko leihoak ditu. Horretara 5.000 euro inguru bideratu ditu udalak. Bestalde, plazako lanak direla-eta haurrendako jolas parkea tokiz mugitu zen eta zoru berria jarri diote parkeari. 16.000 euro balio du zoru berriak.

# Euskararako atea zabaldu dute euskaltegiek

Euskara ikasteko ikastaroetan matrikulatzeko epea zabalik dago. Sakanako AEKren Itsasi euskaltegia astegunetan 09:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era dago zabalik Altsasuko Gartzia Ximenez kalean, edo 607 624 392 hots egin daiteke

### SAKANA

Euskara ikasteko ikastaroetan izen ematea sustatzeko asmoz, Nafarroako Gobernuak, Sakanako Mankomunitateak eta herrialdeko beste 35 toki entitateek "Hurrengoan euskaraz!" kanpaina aurkeztu dute, "euskaldunekin euskaraz hitz egiteko aukera emanen dien pauso hori egitera animatzen dituen". Horretarako, 2020-2021 ikasturtean, Nafarroan dauden ia 30 zentroetan izena emateko aukera dute.

Nafarroa Suspertu Planaren barnean neurrietariko bat da, hain zuzen ere, euskararen irakaskuntza helduendako egokitzea, euskara irakasten jarraitu ahal izatea bermatze aldera. Horretarako, aurreko ikasturtean egokitu egin ziren euskaltegiak, eta Internet bidez eman zituzten klaseak. 2020-2021 kurtsora berriera online modalitatearekin batera, presentzialak eta erdi presentzialak eskainiko dituzte.

Euskarabidearen zuzendari Mikel Arregik esan duenez, "euskaltegiek ekarpen garrantzitsua egin diote Nafarroako gizarteari eta egiten jarraituko dute, orain bizitzea egokitu zaigun krisigarai honetan ere". Tokiko erakundeen ordezkari izan zen Berriozarko alkate Raul Imazek gaineratu zuenez, "garrantzitsua



Joan den urtean 6.000 nafar ikasi zuten euskara euskaltegian. UTZITAKOIA

da euskara ikastea udalerriek osatzen duten ingurune naturalean eta euskaltegiak bezalako hurbileko espazioan". IKAKo Aitziber Garraldak esan zuen: "zentroetan, gure eskura dauden neurri guztiak jarriko ditugu klaseak osasun-arloko berme guztiekin eskaintzeko".

### %70 dirulaguntza

Sakanako Mankomunitateak euskara ikasten duten sakandarreri dirulaguntza emateko dirupoltsa du eta haren bidez matrikularen %50 pagatu dezake

ikasleak. Nafarroako Gobernuak ere dirulaguntza deialdia eginen du aurki eta haren bidez matrikularen %20 estali daiteke. Beraz, euskara ikasten duten helduek matrikularen %70 diruz lagunduta dute. Gainera, ibarreko udal batzuek matrikularen beste %30 pagatzen dute. Erakundeek diruz laguntzen dituztenak dira: ikastaroak, ikastaro trinkoak, barne-tegiak eta autoikaskuntzarako ikastaroak. Informazioa gehiago nahi duenak 948 464 840 telefonora edo [euskara@sakana-mank.eus](mailto:euskara@sakana-mank.eus) e-postara idatz dezake.

## Bertako hazi eta landareak sustatzeko tailerrak

Egiarretako frontoian, irailaren 11n, 17:00etan, Arakilgo antzinako sagarrondo barietateen txertaketa.

### ARAKIL/LAKUNTZA

Ibarreko antzinako nekazaritzako haziak eta nekazaritza ohiturak berreskuratzeko eta balioesteko helburuz, Arakilgo Udalak, Sakanako Garapen Agentziak eta Arrea elkarteak Arakilgo

biodibertsitatea eta ekosistema berreskuratzeko proiektua martxan dute.

Egitasmoaren barruan, nekazaritzako biodibertsitatea berreskuratzeko interesa eta proiektuan lagundu nahi duten pertso-

nei zuzendutako bi tailer antolatuko dituzte.

Egiarretako tailerrari hasiera emateko Oihana Olaberria Jaka alkateak eta Ester Monterok egitasmoaren berri emanen dute. Ondoren, Carlos Mirandak Nafarroako Unibertsitate Publikoko sagarrondo barietateen germoplasma bankuaren aurkezpena egingen du. Segituan Carlos Gilek txertaketari buruzko tailerra emanen du, eta Arakilgo hainbat sagarrondo barietate txertatuko dituzte. Horregatik,

Egiarretara joaten direnek labana zorrotz bana ekarri behar dute. Txertatutako zuhaitz txiki horiek ibarrean landatzeko emanen dituzte. Beti ere, haiek mantentzeko konpromisoa hartzen duten pertsonen artean banatuko dituzte.

Tailerrean izena eman nahi dutenek 634 584 226 telefonora hots egin edo [arakilkultura@gmail.com](mailto:arakilkultura@gmail.com) e-postara idatzi behar dute. Hilaren 9ra arte eman daiteke izena. 25 plaza besterik ez daude.

Bestetik, Lakuntzako frontoia baratzehaziak gordetzeari eta ugaritzeari buruzko saio hartuko du irailaren 25ean, 17:00etan. Hartan izena emateko [info@lakuntza.eus](mailto:info@lakuntza.eus) e-postara idatzi edo 650 866 423 telefonora hots egin behar da. Horretan ere parte-hartzea mugatua izanen da.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, bi tailerretan aulkiak egonen dira. Eta, jakina, COVID-19agatik osasun segurtasun neurriak hartu beharko dituzte parte-hartzaileek.

# Aralarko Lakuntzetxeko lanak aurrera doaz

Aralarko santutegi ondoan jarritako garabi batek gaztigitzen du lanean ari direla. Lakuntzetxea edo Deierri eraikina konpontzeko lanak maitzean hasi ziren, eta urte bat iraunen dute. Milioi erdi euro inguruko kostua duten lanak finantzatzeko mezenasgo kanpaina martxan da.

**Alfredo Alvaro Igoa** UHARTE ARAKIL

Garabi bat dago Aralarko santutegiaren ipar mendebaldean. Eta haren oinarriaren ondoan obretarako makina bat material. Haien parean dago Lakuntzetxea edo Deierri etxea, Beraza eraikuntza enpresa konpontzen ari den Erdi Aroko eraikina da. Hara igotzen den jende askok galdetzen die arduradunei garabiaren zergatiaz. Aralarko santutegiko kaperau da Mikel Garzandiak Goñi etxarriarra. Berak azaldu digunez, eraikinaren egoeraz "duela urte bat konturatu ginen, eta santutegiak nahiko arrisku handia zuela".

Kaperauak azaldu digunez, "mendiak hor beheraka egiten du, mendebaldean. Eraikin hori oso meharra eta sendoa da, eta ez oso altua. Santutegiko paretari eusteko lana egiten zuen nolabait. Hori hondatzen bazen gure kezka zen: santutegiaren mendebaldean dagoen nartexko arku oso zabala dela eta hor arriskua izan zitekeen. Horregatik, santutegiaren sarreran, aldami gainean, kristaltxo batzuk jarri ditugu, aztertzeke aspaldidanik emanda dagoen arku mugitzen ari ote den ala ez, eta obrek santutegia kaltetzen ote duten. Obrarekin ez da mugitzen ari eta dena normal doa".

Artaxoako Pedro apezpikuak, Parisko Pedro gisa ere ezaguna, Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiaren araudia berri zuten eta 1191n orain konpontzen ari diren eraikina oparitu zion kofradiari. "Kontuan izan behar da kofradiak XII. mendean 40.000 partaide zituela. Horrek eskatzen zuen kofradiako jendearendako Aralarren lo egiteko aterpe bat izatea". Garzandiak nabarmendu duenez, "gure historian eraikin hori oso garrantzitsua izan da". Izenaz galdetuta, gogorarazi digu men-

## Aurrekontua eta mezenazgoa

Lanak 450.000 euroko aurrekontua izanen dutela esan digu Garzandiak. "Martxoan kanpaina sendoa egitea pentsatua genuen. Pentsa zer gertatu zaigun!" Eraikina jantzita 550.000 euroko aurrekontua da. Hari buelta emateko santutegiak bere funtsetatik 60.000 euro jarriko ditu, artzapezpikuak 100.000 euro, 50.000 euroko mailegu bat eskatuko dute eta gainontzeko 340.000 euroak mezenasengandik jaso nahi dituzte.

Nafarroako Gobernuak Deierri eraikineko lanak interes sozialeko izendatu ditu Mecna zigilua emanez. Ondorioz, lan horiek egiteko dirua ematen duten Nafarroako pertsonak eta enpresek zerga desgrabazioa dute. Esaterako, lanetarako 150 euro ematen dituen pertsonari Nafarroako Gobernuak errenta aitortzean %80 (120 euro) desgrabatuko dio. Kaperauak argitu du guztia behar bezala egiteko ezinbestekoa dela izen-abizenekin batera nortasun agiriaren zenbakia ematea, gero haiek gobernuari eman eta hark desgrabazioa egiteko. "Jendearendako ez da ahalegin handia, azkenean 30 euro ematen dituzulako. Baina santutegiari 150 iristen zaizkio". Kopuru horretatik gorako dohaintzen kasuan desgrabazioa %40koa da.

Enpresen kasuan sozietate-zergako zerga oinarrian kenkaria izanen dute. Gainera, 300 euro ematen badituzte kuota likidoan %30eko kenkaria izanen dute, %20koa gehiago bada. Bai banakoek bai enpese ES11 3008 0045 9840 71845517 kontu

korrontean sartu behar dute dirua eta gai gisa "Aralarko santutegia Mezenasgoa" jarri behar dute. Bestalde, Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiak ere laguntzeko konpromisoa hartu du.

Dirua biltzeko San Migelen kutxa zaharra ere atera dute santutegiko atarira. "Garai batean herriek festak egiten zituztenean, bakoitzak ordaindu behar zituen ogia, ardoa, urdaia eta olio. Sarreran jarri dugu kutxa eta nahi duenari euro bateko ekarpena egiteko eskatzen diogu. Jende askok pixka bat emanda gu oso kontentu gaude". Informazio gehiago nahi duenak santutegian bertan, Twitterren @SOS\_Aralar profilean edo <http://eu.sanmigueldearalar.info> edo propio sortu duten [www.sosaralar.org](http://www.sosaralar.org) webguneetan du. Laguntza jaso nahi dutelako ekimenari Laguntzetxe izena jarri diote.



diko aprobetxamenduak Aralar-ko Elkarrekin kudeatzen dituela, "eta Lakuntzak, historikoki, erakundearen protagonismoa izan du. Deierri gehiagotan deitzen zitzaien. Etxarrik eta gainerako herriek hor zuten sukaldea".

### Zegoen egoeraz

Garzandiak azaldu digunez, eraikineko "paretak duela 100 urtera arte berean mantendu ziren. XX. mendean leihoak ireki zituzten zerbitzu bat izateko, zeren hiru gezileihozituen. 1942an "sute izugarria izan zen Aralarren, eta garai hartako ostaturia hondatu zen. Jende asko bizi zen Aralarren eta azienda asko zegoen. Eta berez erabilera zuen etxeari erabilera handiagoa eman zioten. Azienda guztia beheko pisuan jarri zuten. Eta goian jendea bizitzeko moldatu zuten. Bertan zeuden egiturak eta kontrahormak mugitu zituzten". 30 bat urtez horrela erabili zuten Lakuntzetxea, eta XX. mendeko 70eko hamarkadan leihoak adreiluz itxi zituzten eta erabiltzeari utzi zioten. "Eraikin hori 50 urtez erabat itxita egon da. Hezetasunak eta kondentsazioak egitura hondatu dute".

Eraikinaren egoera okerrak "animatu gintuen beste proiektuak nolabait aurreratzera". Garzandiak azaldu duenez, "santutegiak orain azpiegitura eskasak ditu eta nahi genuen interpretazio gunea edota erabilera anitzeko aretoa egitea (ikerketarako, bilerak egiteko), santutegiak gaur egun duen eskaintza nabarmen hobetzeko".

Legeak eskatu bezala, arkeologia indusketa egin da lanen aurretik. Horregatik bueltatu da Aralarra Aditu arkeologia taldea eta hark buru duen Fran Valle de Tarazaga Montero (2016-2018 urteen artean arkeologia indusketak egin zituzten santu-



Aralar santutegiko lanak.

tegiaren iparraldean). Garzandiak jakinarazi digunez, "datu interesgarriak agertu dira: guk uste genuen hiru kontrahorma zeu-

## Espazio banaketa

- **Behoko solairua:** interpretazio gunea (67,61 m<sup>2</sup> eta 2,6ko altuera). "Panelak eta pantailak, jendeak dauzka-gun materialak erakutsi ahal izateko".
- **Lehen solairua:** erabilera anitzeko aretoa (67,40 m<sup>2</sup> eta 2,6ko altuera). "Hitzaldiak, kontzertuak edo dena delakoak hartzeko".
- **Bigarren solairua:** kofradiaren eta santutegiko historia artxiboa eta lan gunea bat "ikerketarako lanak eta halakoak egiteko" (67,72 m<sup>2</sup> eta 2,53ko altuera).
- **Guztira:** 195,73 m<sup>2</sup>. Eskailera eta igogailua izanen ditu.





## Aldare prerromanikoa

Kaperauak azaldu digunez, "bagenekien duela ia mila urteko aldare zaharra hor utzia zegoela eta agertu da. Konturatu gara hori dela 1140an berrerabili zuten aldarea. Prerromanikoa den aldare polit hori, harrizko aldare originala, santutegian jarriko dugu San Migel egunean". Francisco Perez Gonzalez artzapezpikua etorriko da hilaren 29an eta 12:30eko mezan berriro sagaratuko du aldarea. "Gainera, bere garaian sagaratu zituzten bi apezpikuren eraztunak Iruñeko katedralean dauzkagu. Lotu nahi ditugu, 880 urte geroago ekitaldi bera".

dela, baina laugarren bat ere azaldu da eta ikusi dugu etxea malkor gainean eraikia dela. Hori guretako berri ona da. Beldurra genuelako egiturak arazoak izan zitzakeela obra egitean. Nahikoa lasaitua hartu dugu!"

Eraikinak hiru solairu ditu eta kisuagileek aurreneko solairuko zorua egin dute eta lehen solairuko zoruko kofratua prestatzen ari dira. "Asmoa da negurako goia ixtea eta gero barruan lasai lan egitea". Kaperauak argitu digunez, aurrekontuaren zati handi bat teilturako izanen da: "santutegiarekin lotu behar da, gauzak ongi utzi behar dira, ez hala-hola. Eta ez dira teilak, kareharrizko harlauzak baizik". Santutegiaren hegoaldeko teilautua ere konpondu beharko dute eta horrek aurrekontu handituko du.

**"DUELA URTE BAT KONTURATU GINEN, ETA SANTUTEGIAK NAHIKO ARRISKU HANDIA ZUELA"**

## Egitasmo gehiago

Gaur egun egiten ari diren "derrigorrezko eta premiazko" lan horren ondoren, etorkizunerako egitasmo gehiago badituzte. Garziandiak azaldu duenez, "bigarrena da, santutegiak zerbitzu hobea emateko, santutegiaren sarreran denda eta komunak jartzea. Eta hirugarrena ostatu zaharra irekitzea litzateke. Jendea eskatzen ari zaigu, mendizaleak batez ere. Horrela zerbitzu osoa eskainiko litzateke".

## Kronologia laburra

- IX. mendea** Ordukoa litzateke aurreneko santutegia.
- 1032** Santutegiaren aurreneko aipamen idatzia.
- 1167** Santutegiaren hegoaldeari itsatsia dagoen egoitza eraiki zen, gerora kofradiaren egoitza izanen zena.
- 1925** Unitate elektrogeno bati esker argindarra iritsi zen santutegira.
- 1942** Sute batek ostatua erabat suntsitu zuen.
- 1965eko iraila** Guardetxetik santutegirako bideberria mustu zen.
- 1972** Santutegiaren berritze lan osoari ekin zion Foru Diputazioak.
- 1982** Uharte Arakilgo Udalak herria eta santutegia lotzen dituen porlanezko basoko pista zabaldu zuen.
- 1997** Santutegiko teiltua berritu, teiltupeko zaborrak kendu eta zorupean berogailua jarri eta bestelako lanak egin zituen Nafarroako Gobernuak.
- 2002** Ostatua jatetxe eta kafetegi bihurtzeko lanak hasi ziren.



## San Migel egunetik hilabetera

Mustu berri dugun hilabetean jende askok gorritz markatuta du irailaren 29a, San Migel eguna. COVID-19 gaitza dela-eta elizetan ere neurri bereziak hartu beharra dago. Esaterako, pandemiaren garapenagatik kultu tenpluen edukiera %75etik egungo %50era pasa da. Garziandiak esan duenez, jende pilaketak saihesteko "eskatu diogu jendeari 26an, 27an, 28an eta 29an joatea, larunbatetik asteartera, eta ez denak San Migel egunean, asteartean. Zerbitzu gehiago eskaintzen saiatuko gara. Jendeari gomendatzen diogu ere irailan zehar igotzea santutegira. Gaurtik igotzen hasten badira, hobe. Nahi genukeelako jendetza ez pilatzea. Hilabete guztian jendea mugitzen bada, guri mesede handia egingen digu". Jakina, fededunek osasun segurtasun neurri guztiak bete beharko dituzte.



## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN  
BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA  
BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /  
kultura@guaixe.eus

## OSTIRALA 4

ALTSASU Jo & Swissknife  
taldearen kontzertua.

19:00etan, Iortia zabalgunean.

ALTSASU Euskaraldia Altsasun,  
zer egin kuadriletan? Bilera  
irekia.

19:00etatik 20:00etara, Gure Etxea  
eraikinean.

ALTSASU 24 ordutan Bargako  
Gurutzeko igoeren errekorra.

Jokin Bereziartuaren eta Jabi  
Gasanzan saiakera.

19:00etan, Bargagainerako bidetik.  
(Ikus 17. orrian)

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ  
Euskal presoak, Euskal Herrira  
elkarretaratzeak.

20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske  
elkarretaratzea.

20:00etan, udaletxearen parean.

ETXARRI ARANATZ Kultur 2020.  
Tenpora taldearen kontzertua.

20:30ean, plazan.

OLAZTI Hutsun eta Ortzi taldeen  
Urbasa musika eta zirku  
ikuskitzuna.

22:30ean, kultur etxean.



IKER URIBE

IRURTZUN Dorisen marrazkiak. Irailean eta urrian.  
Pikuxar euskal txokoan.

## LARUNBATA 5

ALTSASU Bi eguneko  
irteera eginen du Altsasuko  
Mendigoizaleak taldeak:  
Ezkaba-Zubiri eta Zubiri-Urepel.

Antolatzaileak: Txuma eta Jon.  
Ibilaldiaren informazio guztia  
altsasukomendigoizaleak.com  
webgunean eta taldearen  
Whatsappean.

8:00etan, egoitza.

ARBIZU Ipuin kontalaria.  
18:00etan, plazan.

## IGANDEA 6

ALTSASU 91. Altsasuko  
txirrindula lasterketa.

10:00etatik aurrera, Kirol  
Elkartearen paretik (Alzania kalea).

OLAZTI Otsoportillo: Egia,  
memoria, justizia eta

erreparazioa omenaldia.  
12:30ean, Otsaportillon.

ALTSASU Kukai konpainiaren  
Gauekoak ikuskizuna.  
19:30ean, Iortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak,  
Euskal Herrira elkarretaratzea.  
20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 7

ALTSASU Pentsio duinen alde.  
Sakanako Jubilatuen eta  
Pentsiodunen Koordinakundearen  
kontzentrazioa.  
12:00etan, udaletxearen parean.

ZIORDIA Pilota jaialdia:  
Masters CaixaBank Torneoa.  
Laso-Larunbe / P. Etxeberria-Bikuña  
eta Ezkurdia-Aranguren /  
Urrutikoetxea-Irribarria.  
20:00etan, Toki Eder  
pilotalekuan.

ESKELA

Nieves  
Bengoetxea Latasa

Edurne Otxoa Bengoetxea Iankidearen ama

Urak dakarrena  
urak daroa,  
zuk emandakoa  
gurekin gelditzen da.



Iñigo Aritza ikastolako familia, irakasle,  
ikasle eta langileak

## JAIOTZAK

- Iñintza Agirre Lizarraga, uztailearen 18an Etxarri Aranatz
- Ghazal Mabchour, uztailearen 27an Altsasun
- El Mahdi Badie Bounoua, abuztuaren 6an Altsasun
- Suai Garcia Garcia, abuztuaren 18an Irurtzun
- Alain Gastaminza Barrenetxea, abuztuaren 21ean Olaztin
- Seydy Camara, abuztuaren 24an Altsasun

## EZKONTZAK


- Francisco Lopez Bernal eta Isabel Gallego Real, abuztuaren 13an Irurtzun
- Beatriz Mayo Lizarraga eta Ion Ander Lizarraga Lizarraga, abuztuaren 28an Ergoienan

## HERIOTZAK


- Blas Zunzarren Gorriz, uztailearen 15ean Irurtzun
- Ramona Artieda Garziandia, uztailearen 20an Etxarri Aranatz
- Benito Senar Lizarraga, uztailearen 30ean Lizarragan
- Francisco Lopez Quesada, abuztuaren 8an Olaztin
- Antonia Mendiola Larrañaga, abuztuaren 15ean Etxarri Aranatz
- Pedro Mari Etxaniz Osinalde, abuztuaren 22an Etxarri Aranatz
- Juana Mari Navarro Aldasoro, irailaren 1ean Bakaikun
- Maria Blanca Irañeta Goikoetxea, abuztuaren 21ean Uharte Arakilen

## EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 4




Larunbata, 5



Igandea, 6



Astelehena, 7



INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI  
EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



**D**  
**N** DE KOVEN  
NAVARRA  
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarras.com  
www.dekovenavarras.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU  
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860





ESKELA

## Inazio Mujika Artola

Jasone Mujika Uranga lankidearen aita

Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin gelditzen da.

**Iñigo Aritza ikastolako familia, irakasle, ikasle eta langileak**

ESKELA

## Igor Rosa Flores

2020ko uztailaren 30ean hil zen, 46 urte zituela

Itako beti onen duk leku bet kuadrillen ta i umore ta farrak ezttiau sekula aztuko

Ikusi artio, Igor

**Zui launek**  
Arbizu

ESKERTZA

## Mikel Zabalza Hernandez

Gaztearen familiak ezinezkoa egiten zaionez galera honen ondoren jaso dituen afektu froga anitzak banan banan eskertzea, lerro hauen bitartez bere esker ona luzatu nahi du.

Mila esker

Uharte Arakilen, 2020ko irailaren 4an

ESKELA

## Peio Etxaniz Osinalde

Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin geratzen da

Adiorik ez, Peio. Gero arte baizik!

**Bakaikuko zure ehiztari kuadrilla**

ESKELA

## Benito Senar Lizarraga

(San Martingo kofradie)  
Uztailan 30ien hil zan 94 urtekin

Fameliyek eskerrak eman nehi dazkizie horrenbeste moduten maitasune eta elkartasune eman dezien guziei.

Lizarraga - Ergoiena 2020

ESKELA

## Ricardo Prim Salinas

Ahazten ez denak betirako dirau.

**Txulko**  
Altsasun, 2020ko irailaren 4an

IZARRA  
HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

**ALTSASU** Santa Cruz, 6  
**ETXARRI ARANATZ** Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**  
[edo.eskelak@guaixe.eus](mailto:edo.eskelak@guaixe.eus)

- Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €  
prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70  
@Grupolrache  
Grupolrache  
[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



Distantzian, maskarekin, eta tenperatura hartzen, hasi baino lehen. SAKANA BIZIRIK

## Ion Sola eta Leire Baraibar, azkarrenak Tritoiengan

**MENDI LASTERKETAK** COVID-19 ondoko lehen proba nafarra hartu zuen Arbizuko kanpinak

107 korrikalarik (8 emakume) hartu zuten irteera igandean Arbizuko kanpinean jokatuako Tritoiena Mendi Lasterketan. COVID-19 birusaren agerpenaren ondoren Nafarroan jokatu zen lehen lasterketa izan zen, eta korrikalariak biziki eskertu zuten antolakuntzak, Arbizuko kanpinak eta Dantzaleku Sakana Atletismo klubak, egindako ahalgina. Nafarroako Mendi Federazioak eskatutako segurtasun neurri zorrotzekin jokatu zen proba, aldi berean Nafarroako Banakako Txapelketa izan zena. Korrikalariak maskara jantzita hartu zuten irteera, eta lehendabiziko 200 metroak egin eta gero, musukoa kendu zuten. Ibilbide guztian barna, euria eta freskoa izan zituzten bidaide. Hasieran kanpinari buelta egin zioten, eta ibilbidea aldatu egin zuten, korrikalariak Unanura ez sartzeko. Beriain gainera (1.348 m) igo eta gero, Uhartea Arakilgo portutik jaitsi ziren, gero Ondatzetik barna Arbizuko kanpineara heltzeko.

Tritoiengan lehendabizikoz aritu zen Ion Sola anoztarra izan zen azkarrena (1:43:30) eta Nafarroako txapelduna, Zegaman bizi den Beñat Katarain lakuntzarri 25 segundo atera zizkion. Lasterketa asko gustatu zitzaioala aitortu zuen txapeldunak, Beriainera igoera gogorra, jaitsiera teknikoa eta azken kilometro azkarrak zituelako. Iñaki Martiarena uharte arakildarra 7. postuan sartu zen (1:51:44), Top-Tenean.

Emakumezkoetan Zumaian bizi den Leire Baraibar aresorarrak ez zuen areriorik izan eta lehen tokian gurutzatu zuen helmugako marra (2:19:32), Irene Segurari 4 minutu pasa aterata (2:23:53). Segura izan zen Nafarroako txapelduna. Erkuden San Martin etxarriarra lehen sakan-darra izan zen, probako laugarren emakumea eta Nafarroako Txapelketa hirugarrena (2:46:04).

Guztia behar bezala antolatze-ko, Dantzaleku Sakana klubeko eta Arbizuko kanpineko 15 boluntario baino gehiago aritu ziren lanean.

### Sakandarrak

#### Gizonak

1. Ion Sola	1:43:30
2. Beñat Katarain (Lak)	1:43:55
7. Iñaki Martiarena (Uhar)	1:51:44
11. Jokin Bereziartua (Alts)	1:57:07
21. Iker Flores (Alts)	2:03:05
22. M. Satrustegi (Arru)	2:03:40
30. Joseba Iza (Arb)	2:07:41
32. Ivan Sobredo (Alts)	2:08:52
48. J. Galartza (Iturm)	2:16:22
57. Jon Igoa	2:21:38
58. David Oroz (Urd)	2:22:10
69. Jorge Iradi (Alts)	2:29:26
70. Raul Moro (Etx)	2:29:30
72. Asier Leiza (Arb)	2:30:22
78. Jose Javier Maiza	2:33:07
82. J.I. Araña (Arb)	2:37:26
88. Aritz Jaka	2:47:24
105. Pedro Jose Zelaia	3:22:22

#### Emakumeak

1. Leire Baraibar	2:19:32
4. Erkuden San Martin (Etx)	2:46:04

# "Tritoienakoek aurrera egin zuten, eta eskertzekoa da"

**ERKUDEN SAN MARTIN MENDI KORRIKALARIA**

**MENDI LASTERKETAK** Igandean Arbizuko kanpinean jokatuako Tritoiena mendi lasterketan Nafarroako Banakako Txapelketa hirugarrena sailkatu zen etxarriarra

**Maidar Betelu Ganboa ETXARRI A.**  
**COVID-19 birusaren ondorengo lehendabiziko mendi lasterketa izan zen igandean Arbizuko kanpinean jokatu zena, Tritoiena. Lasterketa batean aritu izanagatik bederen, pozik egongo zineten korrikalariak, ez?**

Ba bai, oso pozik lasterketa batean aritu izanagatik. Martxoan jokatu zen azkeneko mendi lasterketa eta ondoren zeuden guztiak bertan behera geratu ziren. Tritoienakoek aurrera egin zuten eta eskertzekoa da, ez baita erraza egoera honetan horrelako lasterketa bat antolatzea ausartzea. Beraz, Arbizuko kanpineko eta Dantzaleku Sakana klubeko eskerrak eman behar zaizkie.

**COVID-19 birusarengatik lasterketan eskatutako segurtasun neurriak non nabaritu ziren?**

Irteerarako, lurrean marra batzuk ezarri zituzten korrikalarien arteko segurtasun distantzia mantentzeko. Horrela, denak batera atera ginen, baina bereiztuta. Irteteko prest geundenean, maskara jantzita, tenperatura neurtu ziguten. Musukoa jantzita atera ginen eta 200 metro korrika egin ondoren maskara kendu eta gorde behar izan genuen; gainera eraman behar genuen. Bestalde, ibilbidean ez zegoen hornidura gunerik. Norberak eraman behar zuen edatekoa eta jatekoa. Beste aldaketa bat lasterketa bukaerakoa izan zen. Hori da, akaso, niretzat, lasterketen momenturik politena: proba bukatuta, gainontzeko korrikalariarekin bildu, hitz egin, lasterketa aipatu... baina igandean ez zen ohiko giro hori egon. Mahai batean auzatea jarri zuten, baina bertatik jatekoa hartu eta aldentzen ginen, distantzia kontuengatik. Eta sari ematean ere ez zen podium egon. Mikrofonoz sarituak zein ziren aipatu eta banaka joan behar zen saria jasotzera; eskuak desinfektatuta, norberak jaso behar zuen txape-



Erkuden San Martin, Tritoiengan lortutako sariarekin. UTZITAKOA

la, trofeoa edo dena delakoa. Arraro samarra izan zen, baina ongi. Garrantzitsuena proba batean aritzeko aukera izan zen.

**Gustura ibili zinen?**

Bai. Eguraldi benetan kaxkarra egin zuen, baina hala ere, esan dezaket gozatu nuela. Laino artean, euripean, haizeak jotzen... miseria guztiak pasa genituen baina benetan oso gustura ibili nintzen.

**Lainopean Beriain ikusten zenuten?**  
Oso itxia zegoen, eta bat-batean... hara, baselizarra iritsi naiz! Eguraldia kaxkarra zen, baina, hala

ere, jendea zegoen bidean eta eskertzekoa da. Ibilbidea oso ongi markatuta zegoen eta bidegurutzetan, galtzeko arriskua duzun bidegurutze horietan jendea zegoen. Benetan eskertzekoa, hor goian egoteko ez baitzegoen giro. Antolakuntza ona, primeran.

**"ORAIN ARTE EZ NINTZEN TRITOIENAN ARITU ETA ASKO GUSTATU ZITZAIKAN. IBILBIDEA EDERRA DA"**



**Aurretik egin zenuen Tritoiena?**

Ez, lehenengo aldia izan da; aurreko urteetan ezin izan naiz aritu. Eta asko gustatu zitzaidan. Udan inguruan ibili naiz, eta gutxi gorabehera ibilbidea egin neukan, ez osoa, baina nahikotxo; errepikatze moduko proba da, oso polita. Nik uste korrikalariak pozik geratu zirela. Hasiera batean eskatutako neurriengatik 200 korrikalariaren muga jarri zuten, eta nik pentsatzen nuen egoera honetan jendea animatuko zela; korrikalariak gogoz egongo zirela. Azkenean 124 korrikalari eman genuen izena, eta 107 atera ginen, horietatik 8 emakume.

**Tritoiena Nafarroako Banakako Txapelketa izan zen, aldi berean. Emakumezkoen sailkapenean laugarrena sailkatu zinen, baina irabazleak gipuzkoarra zenez, zu hirugarren nafarra izan zinen eta saria jaso zenuen. Zorionak!**

Eskerrik asko! Lasterketa jakatu bitartean ez nuen pentsatzen ez denboran ez ezertan. Nire helburua zen eguraldi horrekin eta baldintza horiekin disfrutzea, proba bukatzea. Egia esan, ez nekien oso ongi non nengoan, nor nituen aurretik, erreferentziak... eta egindakoarekin oso pozik nago, egia esan.

**Nola zaude sasoz urte berezi honetan? Zure betiko mailan, okerrago, hobeto...**

Egia esan, nahiko ongi sentitu nintzen. Udan oporrak ditut eta ateratzeko aprobetxatzen dut; entrenatzen ibili naiz. Esango nuke ohiko sasoa dudala. Ongi sentitu nintzen, distantzia ongi, desnibela ere... ongi.

**Beste korrikalariaren batekin hitz egiteko aukera izan zenuen? Zein zen korrikalariaren sentsazioa?**

Jendea gogoz zegoen, baina urduritasun puntu batekin ere. Izan ere, aspalditik lasterketa batean aritu gabe, eta egungo neurri hauekin, badakizu, urduritasun puntu hori sumatzen zen. Bukaeran hitz egin nuen gutxiak aipatzen zuten gustura zeudela lasterketa egin izanagatik. Pozik ikusi nuen jendea, kontentua.

**Zein izanen da hurrengo erronka?**

Ateratzen dena egiten saiatuko gara. Etxarriko ferietakoa egiten bada, aterako naiz. Unean unekoa, ikusiko dugu. Lasterketak ez badaude ere, korrika egitera aterako gara; hori da gustatzen zaiguna, ateratzea eta ibiltzea. Entrenatzearekin konformatu beharko dugu.



Jokin Bereziartu eta Jabi Gasanz, erronkari ekiteko prest. Urduri daudela aitortu du Bereziartuk, baina gogotsu. UTZITAKOA

## 24 ordutan zenbat aldiz igoko dira Bargagainera?

**MENDI LASTERKETAK** Jokin Bereziartuk eta Jabi Gasanzek 24 ordutan Altsasuko Gurutzeko igoeren errekorra lortzeko saiakera egingen dute gaur, ostirala, 19:00etan hasita. Axio Aranbururen 11 igoeretako errekorra apurtu nahi dute

**Maidar Betelu Ganboa** ALTSASU

24 ordutan Altsasuko Gurutzeko igoeren errekorra apurtzeko saiakera egitea poteo egun batean bururatu zitzaizen Jokin Bereziartu eta Jabi Gasanz mendi korrikalari altsasuarrei. "Birusaren kontu honekin aurtengo urtea berezia denez, mendi lasterketa asko bertan behera geratu dira, eta aukera polita iruditu zitzaigun halako erronka bat egitea" aipatu du Bereziartuk. Axio Aranburu mendizale eta eskalataile altsasuarra zenarena da 24 ordutan Altsasutik Bargagainera igo eta jaisteko errekorra: 11 aldiz. Hura gaunditzen saiatuko dira Jokin Bereziartu eta Jabi Gasanz, biak elkarrekin.

Ez da harrizkoa biak elkarrekin aritzeko asmoa. Izan ere, lagun handiak izaki, sarritan elkarrekin joaten dira entrenatzera eta lasterketetara. "Mendi lasterketetan hasi ginenetik Jabi eta biok batera aritu gara, eta antzeko maila dugu. Batera entrenatzera ohituta gaude, nahiko ongi eza-

gutzen dugu elkar, eta erronka batera egitea erabaki genuen" gaineratu du Bereziartuk. Erronka potoloa dute aurretik. "Errekorra hobetzea egingarria ikusten dugu; igoera bakoitzeko denborak neurtzen ibili gara eta posible ikusten dugu, baina erronka zaila da, ezin da ukatu. Orain arte ez dugu gure gorputza halako esfortzu baten aurrean jarri eta ez dakigu nola erantzungo duen; ostiralean eta larunbatean ikusiko dugu" nabarmendu du Altsasuko korrikalariak.

Duela gutxi okurritu zitzaizen erronka egiteko ideia, eta, hortaz, ez dute entrenamendu espezifiko gehiegirik egin. "Gure ohiko entrenamenduak egitetik iritsiko gara ostiraleko erronkara, ez dugu ezer berezirik egin. Urtean barna egindako entrenamenduetan ikusiko dugu ea nahikoa den edo gehiegi sufrituko dugun" dio Bereziartuk.

Eguraldia lagun izango dute. "Aurreko astean eguraldi aurreikuspena begiratu genuen, bi

egunetarako ona ematen zutela ikusi genuen eta horregatik aukeratu genuen asteburu hau. Ostirala izango da bero gehien egingo duen eguna, baina arratsaldeko 19:00etan hasiko garenez, ez da aparteko arazorik izanen. Gauean zira batekin ongi egongo garela espero dugu. Eta ikusiko dugu erronka nola ateratzen den" gaineratu du igandean Tritoiengan aritu zen korrikalariak.

**Estrategia: igoera oinez eta jaitsiera korrika**

Gaur, ostirala, irailak 4, 19:00etan ekingo diote bi lagunek 24 ordutan Gurutzera ahalik eta aldi gehienetan igotzeko erronkari. Bargagainera igotzeko bidean, bigarren partzelaria bukatzean dagoen hesi

**"EGINGARRIA IKUSTEN DUGU, BAINA ERRONKA ZAILA DA, EZIN DA UKATU" JOKIN BEREZIARTU**

txiki horretatik abiatuko dira; izan ere, aurreko errekorrak horik egin zituztela aipatu zieten. Beraiek ere hesi hori izango dute abiapuntu eta helmuga. Estrategia ere nahiko bideratuta dute. "Igoera oinez egingo dugu eta jaitsiera korrika, eta buelta osoa gutxi gorabehera ordu eta erdi kostako zaigula kalkulatu dugu, erritmo ona mantentzeko eta bukaeran ez sufritzeko. Bestela oso luze egingo zaigu" azaldu du Bereziartuk.

24 ordu ordu asko dira, baina bi gazteak ez dira bakarrik egongo. Dantzaleku Sakana atletismo klubekoak dira bi gazteak, eta klubeko kide batzuk gertu izango dituzte, laguntzen, baina gehienbat koadrilako lagunak babesa izango dute. "Goian eta behean hornidura gune txikiak prestatuko ditugu, janariarekin eta edariarekin, eta kuadrillako batzuk gaua pasatzen egongo dira" gaineratu du. Jakina, egindako igoeren kontaketa egingen da, errekorra gaunditzen den edo ez ziurtatzeko.

**Urduri baina gogotsu**

Jokin Bereziartuk aitortu du eguna gerturatu ahala, "nahiko urduri" daudela. "Lagunei erronka egitearen asmoa komentatu genien oso ideia ona iruditu zitzaizen, eta prest zeuden gu laguntzeko. Horrek, azkenean, gehiago motibatzen gaitu eta gogotsu gaude. Jendea ere motibatua dago, eta ea gu animatzera hurbiltzen diren" espero du. Bietako bat ezinean geldituz gero besteak zer egingen lukeen galdetuta, horretaz ez direla aritu aipatu du. "Helburua erronka biak batera egitea da, baina bietako batek ezin badu, bestea saia dadila bukatzen. Baina antzeko maila dugunez uste dut batera bukatuko dugula eta, ahal bada, ongi" ondorioztatu du.

### Bertikala eta Urbasa gabe

Irailaren 20an Uharteko Arakil-Berriain Km Bertikala jokatzeko da, eta irailaren 26an 14. Olatzagutia-Urbasa mendi lasterketa. Biak bertan behera utzi dituzte. Etxarri Aranatzeko aste honetan erabakiko dute ferietako lasterketa egingen duten ala ez.

# "Europar aurrean egon naiz; horrek animatzen du"

**IGOR ARRIETA LIZARRAGA** SAKANA GROUP-ARALAR TALDEKO TXIRRINDULARIA

**TXIRRINDULARITZA** Europako Txapelketatik bueltan, asteburuan Espainiako Txapelketan lehiatuko da Alberdi, Olaetxea, Mintegi eta Aznar anaiekin batera

**Maidar Betelu Ganboa** UHARTE ARAKIL Nafarroako junior selekzioan sakandarrak zarete nagusi.

Bai. Sakanako txirrindularitza taldeetatik Sakana Group-Aralar taldeko nire taldekide Aitor Alberdi, Mikel Olaetxea eta ni, eta Quesos Albeniz-Burundako Iker Mintegi altsasuarra eta Korteseoak baina bere taldekide diren Unai eta Hugo Aznar gaude Nafarroako Junior Selektioan. Azkenaldian elkarrekin aritu gara beti selekzioan, oso ongi.

**Denboraldi berezi honetan Lacturale Trofeoa irabazi zenuen, Nafarroako junior txapelduna zara, Berriatuan Euskadiko Junior Txapelketa txapela jantzi zenuen eta aurreko astean Europako Txapelketan aritu zinen Espainiako selekzioarekin Plouyn (Frantzia). Europako Juniorren erlojupekoan 10. postuan sailkatu zinen eta hori ez da edonolako...**

Orain arte egindako denboraldiarekin kontentu nago. Egoera honetan arraroa izan da guztia,



Igor Arrieta ongi ibili da Europako Txapelketan. ESPAINIAKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA

eta lasterketetan zure burua aurrean ikustea ona da. Europako Txapelketan ere aurrean egon naiz eta horrek animatu egiten du, sentsazio ona sortzen du. Europako Txapelketan maila handia dago. Iaz ere aritu nin-

tzenez, baina aurten pandemia-rengatik kanpoan ia lehiatu ez garenez, ez nekien gainontzeko txirrindulariak nola egon behar ziren, eta gu aurrean egoteak erakusten du hemen ere maila handia dagoela.

**Europako Txapelketako lineako lasterketan tamalez erorikoa izan zenuen eta moztuta geratu zinen.**

Bai, gainera hasieran izan zen, 7 kilometroan. Eroriko bat egon zen, lurrera joan nintzen eta gero tiratzea tokatu zitzaidan talde nagusiarekin batu ahal izateko. Ez dakit zenbat denbora galdu nuen, baina nahikotxo. Aurreko taldea harrapatzea eta lasterketako azkeneko selekzioan egotea lortu nuen, beraz nahiko ondo. Espainiako selekzioa Juan Ayuso nire taldekidea 7.a sailkatu zen eta ni 23.a, 3 segundora. Egindakoarekin kontentu nago. Aitortu behar dut hasieran pixka bat haserre nengoela, erorikoarengatik, lurrera joango ez baintz azken txanparako indar gehiago izango nuelako, baina bukaeran aurrean egon nintzela ikustearekin konforme bukatu nuen.

**Handia izan zen kolpea?**

Lasterketan, beroan, ez nuen asko nabaritu. Gehiago izan zen bizikletako eskulekua biratua geratu zitzaidala eta lasterketa osoa horrela ibili behar izan nuela. Lasterketa bukatzean, hoztean, kolpea gehiago nabaritu nuen kolpea. Minberatuta nituen besoa eta lepoa, izan ere, muturrez aurrera joan lurraren kontra.

**Plouyatik larunbatean bueltatu zinen eta igandean Nafarroako selekzioarekin aritu zinen Beasainen, Gipuzkoako Klasikoan. Berrir ere erorikoa izan zenuen.**

Bai. Azkeneko bi portuetan Ayuso zihoan aurretik, eta atzetik ni beste batekin, errelebotara, indar betean. Ayuso ia harrapatzen ari ginenean, 7 segundora edo geundela, errotanda batean, lurrera joan nintzen. "Joooo" pentsatu nuen. Hankan hartu nuen kolpea, eta bosgarrena sartu nintzen, 3:15era.

**Zein da helburua asteburuko Espainiako Junior Mailako Txapelketan?**

Asmoa lana ongi egitea da; ea, erorketarik gabe, aurrean egon gaitzkeen. Ahal dena egingo dugu, eta ikusiko da zer ateratzen den. Erlojupekoan eta lineakoan ariko naiz, bietan.

**Mallorcetik bueltan, nola jarraituko du denboraldiak?**

Printzipioz Gipuzkoan eta Nafarroan oraindik lasterketak badaude. Eta irailaren 20tik 27ra, gauzak ongi, Munduko Txapelketak jokatuko dira Imolan (Italia). Mundialak dira hurrengo helburu garrantzitsua.

**Juniorren 2. urtea da hau zuretzat, azkena. Afizionatuetara salto egiteko aukerak aztertzen ari zara?**

Egun aurtengo denboraldian murgilduta nago. Etorriko da erabakiak hartzeko garaia.

**"DENBORALDI ARRAROA DA, BAINA ORAIN ARTE EGINDAKOAREKIN KONTENTU NAGO"**

## Nahia Imaz eta Igor Arrieta, Euskadiko txapeldunak

**TXIRRINDULARITZA** Abuztuan bikain ibili dira Sakanako txirrindulariak. Mikel Uncillak Lakuntzako proba irabazi zuen

COVID-19 birusak hankaz gora jarri du txirrindularitza denboraldiko egutegia, eta oso gutxi izan dira aurten jokatu diren lasterketak. Hala ere, jokatuak maila ona eman dute gure txirrindulariek.

**Tadeo, Uncilla eta beste**

Kadeteen mailan, Aimar Tadeo (Sakana Group-Aralar) eta Mikel Uncilla (Quesos Albeniz-Burunda) ibili dira aurreko tokietan. Aimar Tadeo 2. sailkatu zen Beran eta 10. Legarian, baina bere jaioterrian, Lakuntzan, abuztua-

ren 25ean jokaturako Sakana Fundizioa Sari Nagusian urduri aritu zen; 28. postuan sartu zen helmugara. Hain zuzen ere, Mikel Uncillak irabazi zuen proba. Gainontzeko sakandarrak txukun dabilta.

**Nahia Imaz Euskadiko txapelduna**

Emakumezkoetan, Nahia Imaz bigarrena sailkatu zen Lakuntzako Sakana Fundizioa Sari Nagusian, lehen kadetea, eta horretaz gain, abuztuaren 2an Segurako Euskadiko Txapelketan

hirugarrena sailkatu zen, kade-te mailan lehen. Hortaz, Euskadiko kadete txapelduna dugu Nahia Imaz.

**Juniorrak oso txukun**

Junior mailari dagokionez, Igor Arrieta (Sakana Group-Aralar), Iker Mintegi (Quesos Albeniz-Burunda) eta Korteko Unai eta Hugo Aznar anaia (Quesos Albeniz-Burunda) dira aurreneko postuetan dabilzanak, Aitor Alberdi eta Mikel Olaetxearekin batera.

Igor Arrietak Lacturale Trofeoa irabazi zuen uztailearen 29an. Horretaz gain, Nafarroako Junior Txapelketa irabazi zuen, eta abuztuaren 14an jokaturako Euskadiko Junior Txapelketan txapeldun handia izan zen. Unai Aznar bigarrena sailkatu zen, Hugo Aznar seigarrena eta Iker



Nahia Imaz Lakuntzako Sakana Fundizioa Sarian, Lizarragan gora. MARTIN EARLY

Mintegi bederatzigarrena, guztiak Top-Tenean. Horretaz gain, Hugo Aznar bigarrena izan zen Villatuertako Zirkuituan, Aitor Alberdi hirugarrena, Mikel Olaetxea laugarrena eta Iker Mintegi bosgarrena.

**Martxel Etxeberria**

Tamalez, aipatzekoa da Martxel Etxeberri iturmendiarrak (Sakana Group-Aralar) denboraldiari agur esan behar izan diola dagoeneko sendabidean dauden osasun arazo batzuk direla medio.





Etxeberria taldekideekin, Giroan. UTZITAKOIA

## Josu Etxeberria ezin izan du Giroa bukatu

### TXIRRINDULARITZA

Iturmendiarrak Rural Kutxa profesionalen taldeko "stagiaire"-etako bat da

Rural Kutxa-Seguros RGA talde afizionatuen dabilen Josu Etxeberriaren ibilbidea oso ona ari zen izaten, baina, tamalez, iturmendiarrak ezin izan du denboraldia borobildu.

19 urteko txirrindulariak uztailean Zamorako Itzulia irabazi zuen, merezimendu handiz. Ondoren, Jaenen jokatuak afizionatuen Espainiako Txirrindularitza Txapelketan lan bikaina egin zuen Nafarroako selekzioarekin. Bere progresioa aintzat hartuta, Rural Kutxa-Seguros RGA talde profesional kontinentalak bere afizionatuen taldeetik aukeratuak lau "stagiaire"-edo ikastunen artean hautatu zuen Josu Etxeberria, UCIk eskaintzen dituen lasterketa garrantzitsuetarako tokietarako, hain zuzen. Horrela, 23 urtez azpiko Italiako Giroan aritzeko txartela lortu zuen iturmendiarrak eta sasoi batean eta gogoz ekin zion denboraldiko bere probarik garrantzitsuenari.

Tamalez, azken txanpa honetan iturmendiarrak ez du zortea alde izan. 23 urtez azpiko Giroko 2. etapan erorikoa izan zuen Josuk eta minberatuta geratu zen. Horrek hortik aurrera behar bezala aritzea oztopatu zion eta, azkenean, Italiako proba utzi behar izan zuen asteartean.



Altsasuko lasterketa oso estimatua da, baina aurten are gehiago, lasterketa asko bertan behera geratu direlako.

# Guztiek 91. Altsasu Proban egon nahi dute

**TXIRRINDULARITZA** Igandean, goizeko 10:00etan abiatuko da Altsasuko Kirol Elkarteak antolatutako proba prestigiotsua, estatuko zaharrena. 200 txirrindulariren muga beteko da. Distantzia luzatu dute: 6 aldiz igo beharko dute Altamira

COVID-19 birusaren eraginagatik bertan behera geratu dira txirrindularitza proba gehienak, baina Altsasuko Kirol Elkarteak Altsasu Txirrindularitza Proba aurrera atera ahal izateko ahalgin berezia egin du.

### Kostata, baina baimena lortu dute

"Probaren 91. edizioa zen aurten goia, eta ez antolatzeak pena ematen zigun. Espainiar estatuko lasterketa zaharrena da gurea, Altsasuko festetako, eta ukitu berezia du. Horregatik, ditugunak eta gehiago eman ditugu proba antolatu ahal izateko. Askok kostatu egin zaigu. Nafarroako eta Euskadiko Federazioekin bildu gara, protokoloak zehaztu ditugu, Nafarroako Gobernuak ikuskitzen alorretan, festen alorretan, Foruzaingoan... beharrezko departamentu guztietan egon gara. Eta azkenean proba antolatzeko baimena eman digute. Nik uste proba beteranoa eta ezaguna delako eman digutela baimena,

estatuko zaharrena delako" aipatu digu Altsasuko Kirol Elkarteak txirrindularitza sekzioko arduradun Felix Mazkiaranek. Hasi batean irailaren 15ean zen egitekoa, festetako asteartean, baina aurten festak ez daudenez astegunetz lasterketa antolatzeak ez zuen zentzurik. Irailaren 6a librea geratu zen egutegian, Bermeok egun horretarako aurreikusia zuen proba bertan behera utzi zuelako, eta horregatik irailaren 6a aldatu dute.

### Euskaldun Txapelketarako puntuagarria

91. Altsasu Txirrindularitza Proba Euskaldun Txapelketarako baldagarria izango da. Aurten Euskaldunetarako puntuagarriak

## "130 TXIRRINDULARI ARITU OHI DIRA, BAINA AURTEN 200EKO MUGAN GAUDE" FELIX MAZKIARAN

diren 2 lasterketa jokatu ahal izan dira soilik, Zumaiakoa eta Villatuertakoa. Altsasukoa hirugarrena izango da, eta geroago Segura, Lazkao eta Berriatuakoa jokatu dira, gauzak ongi. Beraz, urriaren 4ko Berriatuako lasterketak erabakiko du Euskaldun Txapelketa. Momentuz Baque taldeko Jon Barrenetxea da liderra.

### Altsasun egoteko dei ugari

Horren lasterketa gutxi antolatu direnez, Altsasun egoteko makina bat eskari jaso ditu Felix Mazkiaranek. "Harritzekoa ari da izaten. Normalean 120-130 txirrindulari aritzen dira. 200 txirrindulariren muga dago, pandemiarengatik, eta muga hori betetzear gaude. 15 talde daude izena emanda, eta talde bakoitzak gehienez aurkeztu ahal dituen 12 txirrindulariak ekarriko ditu. Araudia zorrotz betetzen ari gara baina zer pentsa ere ematen dit. 15 talde, 2 anbulantzia, megafoniako autoa, epaileen 5 autoak,

motorrak... sekulako mugimendua da hau" dio probako arduradunak.

Lasterketa igandean, goizeko 10:00etan abiatuko da, Altsasu Kirol Elkartearen egoitza partetik, Alzania kalean. Probari gogortasun gehiago emateko distantzia luzatu dute. Lehen Altamira bost aldiz igotzen zuten txirrindulariek, eta aurten 6 aldiz igoko dute. Guztira 121 km-ko proba izango da, eta sarritan pasako dira Altsasutik. Helmuga Altsasuko udaletxearen aurrean egonen da. "Helmugara ordu bata aldera iritsiko direla aurreikusten da, baina iaz ordu erdi bat aurreratu ziren, beraz, hobeto denborarekin gerturaztea" gomendatzen du Mazkiaranek.

### Segurtasun neurri zorrotzak

Mazkiaran, Altsasuko Kirol Elkarteak kideak eta boluntarioak erotuta dabilta guztia antolatzen. Izan ere, ohiko antolakuntza lanei pandemiak eskatutako segurtasun neurri eta protokoloak gehitu behar zaizkio. "Taldeen izena emateak korreoz egingo dituzte, egunean bertan epailearen aurrean agertu gabe. Distantziak mantentzeko hamaika neurri daude. Jakina, maskara derrigorrezkoa da, eta txirrindulariek proba hasi eta gero kenduko dute. Txirrindularitza taldeen autoak Iortia aurreko zabalgunean egongo dira, eta helmugatik zuzenean bertara joango dira txirrindulariak. Iortia aurreko eszenatokian banatuko ditugu sariak. Jakina, ez da ohiko sari banaketa izanen, podiumean txirrindulariek banaka jasoko baitituzte sariak" azaldu du Mazkiaranek.

Guztia lotuta eta bideratuta dago, baina hala ere urduri dagoela aitortu du Mazkiaranek, pandemia dela eta. "Lasterketa apurtzen den arte, tropela taldeetara banatu arte, ez naiz lasai egongo. Eta proba eta sari ematea bukatu ondoren lasaituko naiz guztiz. Ea guztia ongi ateratzen den eta arazorik ez dagoen" espero du.

## BIRUSA DELA ETA, SEGURTASUN NEURRI ZORROTZAK BETE BEHARKO DITU ANTOLAKUNTZAK





Masters CaixaBank Torneo finalerdietako postuetan sartzeko irabazi beharrean daude Ezkurdia eta Aranguren. ASPE

## Ezkurdia animatzeko aukera dago Ziordian

**PILOTA** Masters CaixaBank Torneo 12. jardunaldiko partida hartuko du Ziordik astelehenean, irailaren 7an, 20:00etan. Ezkurdia eta Aranguren Urrutikoetxearen eta Irribarriaren kontra ariko dira. Sarrerak interneten edo egunean bertan erosi ahal dira

Masters CaixaBank Torneo berezian murgilduta daude Aspe eta Baiko enpresetako pilotariak. Egoerari eta uda berezi honi erantzuna emateko antolatu zuten enpresek aipatu tornea, eta pizgarri moduan bi enpresetako pilotariak nahastuta osatu dituzte bikoteak. Ziordian egunotan ziren ospatzekoak herriko festak, eta ezinezkoa denez, behintzat herrira pilota jaialdi bat ekartzea erabaki dute ziordiarrek, pilota profesionala hain zuzen ere.

Asteburuan Masters CaixaBank Torneo 12. jardunaldia dago jokoan, eta jardunaldi horretako partida bat izanen da astelehenean, 20:00etan Ziordiko Toki Eder frontoian hasiko den jaialdian

jokatuko dena. Jaialdia irekitzeko, Laso eta Larunbe P. Etxeberrria eta Bikuñaren kontra ariko dira, eta ondoren jokatuko da Masters CaixaBank Torneo partida. Joseba Ezkurdia arbi-zuarra eta Aranguren Urrutikoetxearen eta Irribarriaren kontra neurtuko dira.

Ezkurdia eta Aranguren Bengoetxea VI.aren eta Martijaren kontra galtzetik datoz (22 eta 14), 6 puntu dituzte eta goiko postuetatik ez aldentzeko 7. puntua lortu nahi dute Ziordian. Ezkurdia pilotakada ederra jaso zuen buruan igandeko Leitzako partidari, susto ederra, baina zorionez ez dirudi kolpeaz gain ezer larriagorik denik. Printzipioz

beraiek dira faboritoak, baina Urrutikoetxeak eta Irribarriak astelehenean torneo euren lehendabiziko garaipena eta puntua lortu zuten, eta horrek animoa eman die. Finalerdietara sailkatzeko aukerak izateko, irabaztera behartuta daude Ezkurdia eta Aranguren. Urrutikoetxeak eta Irribarriak ez dute finalerdietan sailkatzeko aukerarik, baina euren irudia hobetu eta garaipena lortu nahi dute. Beraz, edozer gerta daiteke astelehenean Ziordian.

### Sarrerak

Sarrerak [entradasfronton.com](http://entradasfronton.com) webgunean edo astelehenean Ziordian erosi daitezke (25 euro).

### Sailkapena

Masters CaixaBank Torneo 11 jardunaldi jokatuta, Artola eta Rezusta dira lider sendoak (10 puntu). Altuna III.a-Imaz, Olai-zola II.a-Zabaleta eta Bengoetxea VI.a-Martija dira hurrenak, zazpina punturekin. Aipatu lau bikoteak finalerdietara sailkatzeko taldean daude. Bestalde, 5. postuan daude Ezkurdia eta Aranguren, puntu bat gutxiagorekin (6 puntu). 6. postuan daude Jaka eta Albisu (5 puntu), 7. postuan Elezkano II.a-Aretxabaleta (puntu 1) eta 8. postuan Urrutikoetxea eta Irribarria (puntu 1).

### Gainontzeko partidak

Bengoetxea VI.ak eta Martijak Jaka ordezkatuko duen P. Etxeberrria eta Albisu izango dituzte arerio ostiralean, 21:15ean, Aiegina (ETB1). Aurreko igandean garaipen garrantzitsua lortu zuten leitzarrak eta etxeberrriak Ezkurdia eta Arangurenaren kontra, eta finalerdietarako sailkatzeko bide onean daude. Baina galtzetik datoz Etxeberrria eta Albisu, eta egoerari buelta eman nahi diote. Bestalde, Olai-zola II.a eta Zabaleta Elezkano II.aren eta Aretxabaletaren kontra ariko dira larunbatean, 17:30ean, Lezaman (ETB1). Olai-zola II.ak eta Zabaletak garaipen estua bezain garrantzitsua lortu zuten asteburuan Altunaren eta Imazen kontra, partida oso estuan, soilik puntu batengatik gailendu baitziren goizuetarra eta etxarrendarra (22 eta 21). Zabaletaren pilotakadak ezinbestekoak izan ziren urrezko puntua lortzeko, eta sasoi betean dago Etxarrenda atzelaria. Bukatzeko, Artola-Rezusta liderren eta Altuna III.a-Imaz bigarrenen arteko partida hartuko du Lekeitiok, igandean, 17:00etan (ETB1).



Ziordiarrek ere animatu ziren.

## 7.016 euro Ziordiko Elkartasun Birtualean

### ATLETISMOA 200

korrikalarik parte hartu zuten ekimenean, bakoitzak bere herrian

Ziordiak VII. Elkartasun Lasterketa hartu behar zuen maiatzaren 23an. COVID-19 birusa zela eta, abuztuaren 29ra atzeratu zuten, baina pandemiaren egoera kontuan hartuta, proba egitea ez zen ikusten. Horregatik, elkartasun lasterketa birtuala izatea erabaki zuen Ziordiko Running Taldeak: nok bere herrian korrika egitea.

Horrela, Ziordiko elkartasun lasterketa birtualean izena ematea zabaldu zuen antolakuntzak. Dortsala eskuratzeko gutxienez 5 euro ordaindu behar ziren. 2.010 euro jaso ziren saldutako dortsalei eta jasotako dohaintzei esker, guztiak Iruñeko Paris 365 jantoki sozialera bideratuko direnak. Jose Ramon Perez antolatzaileak azaldu zuenez, Nafarroatik kanpo Gironan, A Coruña, Elxen, Valladoliden, Santiagon, Burgozen, Madrilan eta Kanariar uhartertan parte hartu zuten korrikalariak, 200 korrikalari inguruk.

Horri gaineratu behar zaio Ziordiko Running Taldeak opariz betetako zarearen zozketa egin zuela. Txartelen salmentarekin 5.006 euro jaso ziren guztira. Aurrera Markel Carmona fundazioari 3.200 euro bideratuko zaizkio, Dravet Sindromea Fundazioari 908 euro eta Rett Sindromea Espainiako Elkarteari 898 euro.

## Denboraldiko lehen argazkia

**ARETO FUTBOLA** 2020/2021 denboraldiko jokalarien eta talde teknikoaren lehen argazki ofiziala egin zuen asteazkenean Osasuna Magna Xotak Anaitasuna pabilioian. 16 jokalarik eta 7 teknikari izan ziren kamera aurrean agertu zirenak, Imanol Arregi entrenatzailea buru. Irurtzungo entrenatzaileak talde gazte eta eraberritua du bere esanetara.



OSASUNA MAGNA XOTA



# Gure unibertsoa Urbasan kokatzen da

Hutsun + Ortz taldearen emanaldia izanen da gaur, ostirala, 22:30ean, Olaztiko kultur etxean. Istorioa baso batean kokatzen da, eta ohituren eta egunerokotasunaren artean sortzen diren talkari buruz hitz egiten du

## OLATZAGUTIA

Musika eta akrobazia ikuskizuna da *Urbasa*. Hutsun taldeak eta Ortz Acosta artistak sortu eta interpretatzen dute. "Txalaparta da erabiltzen dugun musika tresna garrantzitsua, baina beste musika elektronikorako tresna bat ere erabiltzen dugu". Acostak "zirku kutsua" ematen dio eta antzerki "puxka" bat ere badu, Anai Gamba Uriz Hutsun taldeko kideak azaldu duen bezala. Gaur, ostirala, 22:30ean, Olaztiko kultur etxean izanen dira.

Pertsonaia batzuen "talka" kontatzen du Urbasa ikuskizunak: "Haien ohiturek eta egunerokotasunak hasieran talka egiten dute, baina obrak aurrera egin ahala, egoera aldatuko da". Gai unibertsal bat lantzen du. Proiektuaren ideia Mikel Urrutiak eta Anai Gamba, Hutsun taldeko kideek, eta Ortz Acostak elkar ezagutu zutenean sortu zen. Hiruak Lurrak proiektuan parte hartu zuten, "eta hortik aurrera beste ikuskizun bat prestatzeko nahia sortu zen". Eszenografia eta istorioa baso batean oinarritu nahi zutelaz bazekiten, "izenarekin bueltaka ari ginela ikusi genuen Urbasa zela gure paisaia polita, atsegina eta gure obrarako papera betetzen zuena". Gainera, Acosta gasteiztarra da, eta Urrutia eta Gamba iruindarrak, "erdian gelditzen den zonaldea da Urbasa, eta gustatu zitzaigun".

Izenburua Urbasa izan arren, istorioa "ez da Urbasako basozehatz batean" kokatzen. "Munduko edozein baso da, baina guk, gure buruetan eta bihotzetan, Urbasan kokatzen dugu". Gaur egungo arazoan bizipen bat azaleratzen duela azaldu du Gamba. "Azken finean, gai unibertsoa da, baina gure unibertsoa hemen dago".

## Jostailua

"Txalaparta jostailu dibertigarri itzela da". Guztiaren hasiera izan

zen hori. "Mikel eta biok Iruñean jotzen hasi ginen duela 18 urte inguru, eta nor bere kabuz aritzen zen, nor bere lekuan". Duela 10 urte inguru elkartu ziren, eta hirugarren kide batekin Hutsun taldea sortu zuten. "Konpromiso hori hartu genuen". Hamarkada honetan, "asko entseatu dugu, asko jo dugu eta duela 18 urte bezala jolasten jarraitzen dugu". Urteekin jolasak "aldatze prozesuak" bizi izan dituela azaldu du Gamba, "baina jolasa da, jolasa".

Instrumentu bakarra jotzen duen taldea da Hutsun: txalaparta. "Nahiko xelebrea da. Normalean, taldeetan, hiru pertsona badaude hiru instrumentu jotzen dituzte. Baina guk bakarra jotzen dugu". Horrek hainbat proiektutan sartzeko aukera ematen diela esan du Gamba. "Errazago egiten zaigu guk beste musikari batzuk kontratatzea baino".

## Txalapatatik antzerkira

Orain arte Hutsun taldeak egin dituen ikuskizunak musikan oinarrituta daude. "Musika bidea eta helburua zen". Lurrak proiektua, Acostarekin egindako proiektua, zirku garaikide obra bat zen eta bertan "musikak beste arte edo diziplinekin zubi pila bat dituela ikusi genuen". Antzerkiarekin, zirkuarekin edo agertokiarekin zuen "jolasa" interesgarria iruditu zitzaion. "Gainera, hiruron artean oso giro ona dugu". Musikari lanak egiteaz gain, antzele lanak ere egiten dituzte Hutsun taldeko kideek *Urbasa* ikuskizunean. "Kontzertu bat baino gehiago antzezlan bat ikus-

**"MUSIKAK BESTE  
DIZIPLENEKIN ZUBI  
PILA BAT DITUELA  
IKUSI GENUEN"  
ANAI GAMBRA, HUTSUN**

tera joaten da jendea. Hori da desberdintasun handiena".

"Dibertigarria izan da. Guk inoiz ez dugu burutik galdu gure bereizgarritasuna txalaparta dela eta ez garela antzeleak. Baina neurri txiki batean, eta entrenatuta, modu duin batean defendatu gaitezke". Antzele bihurtzeko prozesua deskribatzeko "gogorra, polita... mila adjektibo" direla esan du Gamba: "Ahalegin handia egin dugu, eta buruhauste asko izan ditugu maila askotan". Izan ere, gaur egun ikuskizun bat aurrera ateratzeko "zailtasun asko" ekartzen dituela azaldu du txalapartariak: "Zailtasunetako batzuk alderdi artistikotik datoz, beste batzuk burokratikoak dira. Artistikoak gogor lan eginez gainditu ditugu".

Martxoaren 12an mustu zuten *Urbasa*. Prozesu luze baten ondoren, "garrantzitsua izan zen guretzat estreinu hura egin ahal izatea". Eta mustutzearen ondoren, koronabirusak eragindako egoeratik konfinamendua eta egoera berri bat etorri ziren: "Hilabete gogorak izan dira. Maila pertsonalean, guztiok bezala, itxita egon gara. Baina txalapartariok badugu beste musikariak ez duten zerbaitekin: ezin dugu etxean txalaparta jo". Egoera "lasaitasun handiz" hartu zutelaz aitortu du, "kanpoan egoera hain eroa zenez, behintzat etxean eta taldean modu lasaiean hartzen saiatu gara".

Egunez egun gauzak aldatzen ari dira, eta "gure ogibidean normaltasuna hori bazen, orain erokeria hutsa da". Hemendik bi hilabetetara non egongo diren ezin dutela aurreikusirik esan du Gamba: "Zorionez, uda honetan nahiko programatu gaituzte eta nahiko lan egiteko aukera izan dugu". Hala ere, ez dakite zer ekarriko dien udazkenak. "Ordura arte, lasai".



Hutsun taldeko kideak eta Ortz Acosta akrobata 'Urbasa'-n. UTZITAKOIA



**BAZTERRETIK  
JUANKAR  
LOPEZ-MUGARTZA**

## Eskolara itzultzea

Betidanik gorroto izan dut ikustea abuztuaren erdian, uda beroko egun sargorienetan, kartel bat megadenda horietako batean hauxe esanez: "La Rentrée" edo "La Vuelta al Cole", alegia, "Eskolara bueltatzea". Beti sentitu izan dut sentsazio txar bat, igande arratsalde batean senti dezakedana baino makurragoa, baina aurtengoa beste uda batzuetan sentitu dudana baino askoz bortitzagoa izan da COVID-19 maltzurra dela zio.

Inoiz ez bezalako erronka baten aurrean gaude. Dena da berria, ez dakigu zer gertatuko den hurrengo hilabeteetan, pandemiak atzera egingo duen edo ez, bera kontrolatzen jakingo ote dugun, eta alertan egon behar dugu denok. Bizkor-bizkor ibili behar dugu denok, eta segurtasun neurriak inoiz baino gehiago gorde behar ditugu.

Kurtso berri baten aurrean gaude. Gaixotasuna hor dago, ez da desagertu eta ez du ematen hain erraz desagertuko denik, baina bizitza aurrera doa. Bai, beste gauza asko

daude munduan gaixotasunaz aparte, eta gauza horiek ere kontuan hartu behar ditugu, gaixotasunak arazo horiek guztiak desitxuratu eta estali gabe. Horretan ere, adi egon behar dugu.

Medietatik zurrumbilo eta zarata asko iristen zaigu. Batzuetan gaixotasunak egongo ez balitz bezala aritu dira, turismoa errazteko; beste batzuetan gaixotasunaz hitz egin dute etengabe errege lapurraren ihesaldia estaltzeko edo Unai Etxeberria Granadako Futbol taldeko atezainaren kaleratze fulminantearen aurkako kritikak isilarazteko. Beraz, adi eta erne.

Bukatzeo, hau izan da batzuetatik Bibliako zigor jainkotiar baten modukoa. Dena dela, zigor biblikoa bada, huraxe ekidin daiteke. Izan ere, Jaungoikoak Lot gaixoari gizon justuren bat aurkitzeko eskatu zion zigorra kentzearen truke; ageri denez, ez zuen arrakasta handirik izan; baina Jon Kortazar Uriarte irakasleak gogoratzen digunez, Gabriel Arestik ere gizon justu bat bilatu nahi izan zuen Bilbon gure kultura salbatzeko. Zuzenak eta kontzienteak izan gaitezke, eta gure gaitz honen aurkako txertorik indartsuena aurkituko dugu. Ez zalantzarik izan.

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU

Gau bateko iluntasunean hiru sortzailearen bizipenak erakusten ditu *Gauekoak* Jon Mayaren azken ikuskizunak. Dantzariaren oholtzara buelta dela esan daiteke, nahiz eta, berak aitortu duenez, inoiz ez dion dantzatzeari utzi. Igandean, 19:30ean, Altsasuko Iortia kultur gunean aritu ondoren, Malagako norabidea hartuko dute astelehenean. Andaluziako hirian Max sariak banatuko dituzte, eta *Gauekoak* bi sailletan sarietarako proposatuta dago: Dantza ikuskizun onena eta eszenografia onena. Iortia kultur guneko emanaldirako sarrera gutxi batzuk gelditzen dira.

**Zer da 'Gauekoak'?**

*Gauekoak* oso ikuskizun intimoa da. Kukaik orain arte egindako ikuskizunekin alderatuta, ikuskizun intimoa eta pertsonalea da, nahiz eta hiru lagun gauden oholtzan: Xabi Bandini, Arkaitz Miner eta hirurok. Hiru sortzailek gau batean izan ditzaketan bizipenak, burutazioak eta abarrak kontatzen dituen arren, asko dauka autobiografikotik. Barne prozesu batetik abiatzen da, egoera konkretu bati ematen dioten erantzun zehatz batetik. Niretako oso berezia da. Kukaiko ikuskizunak beti izan dira konpainiakoak, dantzari talde batean oinarritutakoak, eta kasu honetan dantzari bakarra dago, bi musikariz lagunduta.

**Nola sortu zen?**

Nahiz eta inoiz ez diodan dantzatzeari utzi, iritsi zen momentu bat non Kukairen azken ikuskizunetan zuzendaritza lanetan aritzen nintzen, dantzari lanetan baino gehiago. Nolabait, pentsatu nuen etapa bat ixten zela eta erabaki hori hartu nuela, barrutik zerbait egiteko eta bizipen horiek guztiak oholtzara eramateko gogoia sartu zitzaidan. Cesc Gelabert, Israel Galvan eta Sharon koreografoak gonbidatuak izan ditugu, eta gauza horiek landu ditugu. Prozesuan Mireia Gabilondo zuzendariarekin ere idatzi, pentsatu eta errepasatu ahal izan ditut. Pila bat gozatu dudana prozesua izan da. Estreinu egunean kideei aitortu nien prozesuagatik bakarrik merezi izan duela.

**Zer nolako dantza ikusi daiteke ikuskizun honetan?**

Esango nuke oso dantzakera desberdinak daudela. Baditu lauzpabost zati oso desberdin-

# "Ikuskizun intimoa da, asko dauka autobiografikotik"

**JON MAYA DANTZARIA ETA KOREOGRAFOA**

'Gauekoak', Kukai konpainiaren azken ikuskizuna, Iortia kultur gunean izanen da etzi, igandean, 19:30ean. Altsasuko emanaldia lanaren Nafarroako mustutzea izanen da



Jon Maya dantzaria eta koreografoa 'Gauekoak' ikuskizunean. KUKAI DANTZA KONPAINIA

ta, baita musikaren aldetik ere. Oso anitza da. Alde batetik, Xabiren kantakera dugu, beste alde batetik, Arkaitz biolina, mandolina eta gitarra jotzen... elkarrekin abesten dugu, eta haiek ere dantza egiten dute. Lau koreografo gaude ikuskizunean, eta koreografo bakoitzaren zatia oso nabarmena da. Nirea dantza tradizionalen oinarritutako dantzakera da; Israelek gutxien ikusi dugun Jon batera eramaten nau, eroa, umore kutsu batekin; Sharnonek oso erraierara eramaten nau, errepikapen batetik sentimendu batera, eta Cescek gogoeta giro batera eramaten nau. Atal bakoitzean Jon desberdin bat ikusten da, edo Jonen zati desberdinak. Oso intentsua da. Eta oso benetakoa. Hiruron artean gertatzen den harremana ere oso benetakoa da, oso naturala.

**Igandean Altsasun ariko zarete, baina martxoan egin behar zenuten emanaldia. Bat-batean dena gelditu zen. Nola eraman dituzu hila-bete hauek?**

Konfinamendua hasi zen aste horretan joan behar ginen. Guztiak bezala eraman ditut. Egoera

**"MALAGAN EGOTEAGATIK SARITUAK ETA ERREKONOZITUAK SENTITZEN GARA"**

pila batetik pasa gara, bai pertsonalak bai profesionalak. Egia da maila pertsonalean etxean ondo egon naizela, etxekoekin, eta osasungarria ere izan da. Baina alderdi profesionalean gorabeheratsua izan da. Kukai bezalako kultur proiektu bat aurrera eramateak ahalegin eta energia asko eskatzen ditu, eta horrelako ziurgabetasun batean dena hankaz gora jartzen da. Era berean, ekintzari ekin genion eta gauza pila bat egin ditugu konfinamendu garaian. Ikusentzunezkoak egin ditugu, musoeekin lanean aritu gara, Donostiako Zinemaldian estreinatuko den film labur dokumental bat ere egin dugu... Orain atzera begiratzen dut, eta zenbat lan egin dugun ikusten dut. Momentuan agian ez nintzen konturatu, baina atzera begiratzean gauza asko egin ditugula ikusi dut.

**Eta emanaldiak egiten hasi zarete berri.**

Bai. Egoera arraroa da. Leku batzuetan gauzak antolatzen ari dira, eta oso ongi; beste batzuetan motelago ari dira. Ezjakintasun horretan egin ditugun emanaldietan pozik egon gara. Norabidea markatu digute. Kultur ekitaldiak seguruak dira, berme guztiak betetzen dira. Gauzak egiteko aukera dago.

**Gainera, konfinatuak geunden garai horretan, Max sarietarako izendatuak esan zituzten, eta 'Gauekoak' Dantza ikuskizun onenera eta Eszenografia onenera izendatuta dago. Zer sentitzen da?**

Oso pozik. Gainera, konfinamenduen erdian harrapatu gintuen albisteak. Orduan oso albiste polita izan zen. Aurretik aipatu ditudan arrazoi guztiengatik eta ikuskizuna nola sortu zen kontuan izanda, oso xumetasunetik sortu zela, baina bihotz handiarekin. Horrelako sarietara izendatuta egon garen beste aldietan hala esan dut eta hala sinisten dut: horrelako leku batean egotea, gainera, astelehenean Malagara joatea eta horrelako gala batean egotea... hori da saria eta errekonozimendua guretzat. Malagara ospatzeko borondate guztiarekin joango gara, sarituta sentitzen garelako han egotearekin.

**Zer da dantza zuretako?**

Azkenean, bizitza bat eraiki dut horren inguruan. Bizitzeko modu bat. Dena da. Nire bizitzan egin ditudan hautu guztiak dantzaren alde egin ditut.





Puro Relajo taldea. UTZITAKOIA

# Belaunaldien arteko doinuak

Altsasuko festetako iazko kontzertua "jendetsuenetariko eta arrakastatsuenetariko" bat bezala gogoratzen dute Puro Relajo taldeko kideek. Datorren ostiralean, irailak 11, 19:00etan, Altsasura itzuliko dira

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU Oibarkoak dira, baina Sakana-rekin harreman estua dute. Puro Relajo 2013. urtean sortu zen, kantu afari batean, eta zazpi urte hauetan mexikarrak eta rantxerak abesten dituen talde ospetsuenetarikoa bihurtu da. Irailaren 11n, datorren ostiralean, 19:00etan, kontzertua eskainiko dute Altsasuko Iortia zabalgunean. David Garcia Erviti taldeko kideak aipatu duenez, "pena da aurten iazkoa ezin errepikatzea. Giro handia zegoen". Kultur emanaldi guztiak bezala, egoera berrira moldatu behar izan dituzte kontzertuak, hala ere, jendea "animatzea eta dibertitzea" da oraindik ere Puro Relajoren xedea.

"Sakanan jendeak oso ongi erantzuten du, oso eskertuta gaude bertan izan dugun harrearekin". Bailaran egin zuten

lehenengo kontzertua Uharte Arakil izan zela gogoratu du Garciak, eta urteekin "herri ia gehienetan egon gara, behin baino gehiagotan". "Etxetik" gertu geratzen zaie Sakana, "eta leku oso polita da". Haranera itzultzeko gogoz egoten dira. Gainera, Sakanarekiko lotura gehiago dituzte, Lakuntzan bizi den Iñaki Bizkairen lagunak direlako. "Txuma gure akordeoilariak ezagutzen zuen. Nik ere ezagutzen nuen Nafarroa osoan ibili delako, eta ezaguna delako". Ondorioz, Puro Relajo taldea Iñaki Bizkai-

**"EZ GENUEN BILATU, BAINA PURO RELAJOK BEREZKO SOINUA ZUELA ESATEN HASI ZIREN"**

ren diskoaren aurkezpeneko talde gonbidatua izan zen.

Mexikarrak abesten ditu, batik bat, Oibarko taldeak. "Ia hemengo musika bezala" ulertzen du Garciak: "Nafarroan oso errotuta dago. Taldeko bost kideok txikitatik mexikarrak entzun ditugu gure gurasoek entzuten zituztelako, eta estilo horrekin lotura berezia geneukan". Estilo hori taldearen sorreraren arrazoa izan arren, urrats bat gehiago eman zuten eta errepertorioa euskalkanta tradizionalak sartzen hasi ziren: Txoria txori, Xalbadorren heriotza eta abarren bertsoak egin dituzte. Baita hegoamerikar musika ere. "Herri musika eginen dugu. Jendeari gustatzen zaion musika. Harrera oso ona izaten dute, eta animatzeko eta dibertitzeko balio dute".

Herri musika jo arren, Puro Relajoren musikak "ukitu" bere-

zi bat du. "Hori esaten digu jendeak". Lehenengo diskoa grabatu zutenean, "beldurra" izan zuten taldeko kideek, izan ere, Garciak azaldu duenez, ez dute mariatxiek erabiltzen dituzten gitarra handiak erabili, "eta ez genekien nola entzungo zen". Baina diskoa entzun zutenean, soinua gustatu zitzaizen. Baita jendeari ere. "Puro Relajok berezko soinua zuela esaten hasi ziren, baina ez genuen guk bilatu". Soinu oso "identifikagarria" lortu dutela esaten dute zaleek. "Bilatu gabe, soinu berezi batekin lotzen gaituzte".

## Xarma

"Hasieratik desberdin egiten dugula esan digute". Zuzenekoak dira Puro Relajoren beste bereizgarrietako bat. "Oso indartsuak izaten dira". Mariatxi tradizional batekin alderatuta ere, haien estetika desberdina da. Jendeari eskerrak eman nahi dizkio taldeak, "hasieratik ongi pasatzera eta disfrutatzen etorri direlako". Kontzertu parte-hartzaileak eta hartu-eman handikoak egin dituzte. Jendeari abesteko aukera ematen diote. "Kontzertu bat ez du taldeak eginen, kontzertuak publikoak eginen du. Sakanan topatzen dugun publikoa, esaterako, gozamina da, haiek eginen dutelako kontzertua". Jendeari konektatzen dute. "Modu hunkigarrian edo umoretsuan abestien artean hitz eginen dugu eta abestiak azaltzen ditugu". Boluntarioak eskatzen dituzte ere, "eta oso gutxitan ez da inor atara". Aurten ezin dituztela horrenbeste zuzeneko egin, faltan nabaritzen dituztela esan du Garciak.

Jende helduarendako musika estiloa eginen zutela pentsatzen hasi zen Puro Relajo, "baina harritu gaitu plazetan adin guztietako jendea ikusteak. Gu bezala mexikarrekin hazi diren haurrak eta 90 urteko aitona-amonak". Hori bizitzea taldearendako "oso berezia" dela aitortu du Garciak. "Belaunaldi ugari plazan estilo bakar batean abesten eta dantzan elkartzea izugarria da. Garai bateko festetara itzultzea beza-

**"DENAK PLAZAN ELKARTZEN ZIRENEKO GARAI BATEKO FESTETARA ITZULTZEA BEZALAKOA DA"**

lako da, denak plazan elkartzen zirenean". Orain aukera gehiago daudenez, plazan hainbeste jende elkartzea zailagoa dela esan du, "oso pozik gaude".

Musikariak azaldu du Mexikora migratu zuten euskaldunak izan litezkeela mexikarrek Euskal Herrian duten arrakastaren sekretua. "Musika hori ekarritzen, eta gu musika hori entzunez hazi gara". Musika estilo hori "gurea bezala" gelditu dela dio.

## Plazatik estudiora

Zazpi disko kaleratu ditu Puro Relajok. Lehenengo hiruretan mexikarrak, Hego Amerikako abestiak eta euskal kantaren bat grabatu zituzten. Laugarrenean, "jendeak eskatzen zigulako", euskal abestien bertsoak grabatu zituzten. "Modu berezian eginen genituela esaten ziguten, ukitu berezi bat ematen genielako". Arrakastatsua izan zela dio musikariak eta oraindik ere "ongi saltzen" dela. Bosgarrenean eta seigarrenean rantxeretara itzuli ziren, eta zazpigarrenean zuzeneko batekin "ausartu" ziren. "25 abesti ditu: 15 gaztelaniaz eta 10 euskaraz". Abesti berriak sartu zituzten zazpigarren disko horretan. "Kapritxoa eman genuen". Beste disko bat prestatzen ari direla aurreratu du Garciak.

Zazpi urtetan garapen handia izan du taldeak. "Txantxetan hasi ginen. Uda hartan zortzi kontzertu eskaini genituen. Hasiberriak ginen, eta artean ez genuen oso serio hartzen". 2014an, taldea sortu eta urtera, lehenengo diskoa kaleratu zuten. "Ibilbide serioagoa hartu genuen". 25 kontzertu egin zituzten urte hartan, hurrengoan 60 eta hurrengoan 80. "Progresiboa izan da". Guztira, 500 kontzertu baino gehiago egin dituztela esan du Garciak.

"Ez zitzaigun burutik pasa ere egin arrakasta hau izango genuenik". Taldekide guztiak aurretik beste talde batzuetan ibilita ziren. "Baina elkartu ginen, eta gauzak ongi egin nahi genituen". Diskoak harrera ona izan zuten, eta jendearen erantzuna eskertzeko diskoarekin lortutako diru horrekin beste disko bat grabatzea erabaki zuten. "Gurpil bat egin dugu. Diskoek kontzertuak elikatzen dituzte eta kontzertuek diskoak". Sare sozialak ere aliatuak izan dira hasi zirenetik. Youtuben musika bideoak egin dituzte, haien abestiek in istorioak kontatzen.

# "Elur gutxi egiten duen garaia, roller ski-aren momentua da"

Etxarriko Jesus Goena (Goe) eta Iñaki Eskirotzek (Luze) Lizarragako portua igotzen ikus ditzakegu normalean, baina ez bizikletaz, baizik eta roller skiz. Kuriositatez josita, roller skiaren ezaugarrien eta haien zaletasunaren inguruan galdetu diegu

Rebeka Mendoza ETXARRI ARANATZ

## 1 Zer da roller skia?

Ipar eskia entrenatzeko modu bat da, udan entrenatzeko aukera emateko da. Horrela, udan, elurrik ez dagoenean ipar eskia gurpilekin egiteko aukera duzu. Ipar eskiko kirola jarraitzeko aukera onenatarikoa da. Mugimenduak berdinak edo oso antzekoak dira. Elurretik asfaltora pasatzea da alderik nagusiena.

## 2 Nola zaletu zineten?

Lehendabizi, elurretan eskiatzen hasi ginen, baina gero konturatu ginen elur gutxi egiten zuela, urtero gutxiago. Iñakirekin hitz eginez, eski modalitate honen berri eman zidan eta, azkenean, roller-ak erosteko konbentzitu ninduen.

## 3 Ba al dago Sakanan roller skian ibiltzen den jenderik?

Horrelako kirol bat ezagutzera ematea oso zaila da. Ez gara asko, kirol oso minoritarioa da, baina dauden gutxi horiek maila oso onekoak dira. Adibidez, Etxarrin, Bernar eta Olga Garziandiaren kasuak ditugu. Aita eta alaba dira, eta maila handian lehiatzen dira. Gu, ordea, zaletasunagatik ibiltzen gara, ez gara lehiatzen.

## 4 Urte osoan egiten duzue zuek roller skia? Edo bakarrik udan?

Azken urteetan asko aurreratu da ipar eskia. Materiala oso ona baita. Roller skia udan bero handia egiten duenean ez da batere aproposa, baina udaberri-neguan entrenatu ahal izateko aukera oso ona da. Gainera, korrika, mendia edo ohikoa goak diren kiroleetatik aparte beste modalitate bat egiteko aukera ematen du. Neguan elurrik ez dagoenean roller skia egiten dugu.

## 5 Zenbat denbora eramaten duzue kirol hau praktikatzen?

Ipar eskia 25 urte baino gehiago. Roller skia aldiz oso berria da, duela hiru urte inguru hasi ginen. Gure kasuan, lesio baten ondorioz animatu ginen roller skia probatzera. Kirol honetan ez dago inpakturik eta gihar guztiak erabiltzen dituzenez gorputzerako oso ona da.

## 6 Non ibiltzen zarete normalean?

Lizarrusti inguruan eta Lizarragako portuan batez ere. Urbasa ingurua edo bertatik Opakuaraino doan errepidea ere oso aproposak dira. Sakana inguruan roller egiteko aukera paregabeak daude, errepide onak eta berrituak behar direlako.

## 7 Garestia al da roller ski egiteko behar den materiala?

Tira, garestia ez nuke esango. Botak ipar eskirako erabiltzen diren berberak dira, eta hori da, hain zuzen, erosi beharreko materialik garestiena. Roller-en kasuan, nahi duzun bezainbeste gastatu dezakezu, baina, orokorrean, ez dira garestiak. Roller bakoitzak bi gurpil ditu eta bi modalitate daude: klasikoa, paraleloan ibiltzeko; eta patinatzailea, patinatzaileak bezala aritzeko. Azkenik, makila batzuk behar dira, eskiatzeko erabiltzen direnetakoak.

## 8 Antolatzen al da roller ski txapelketarik inguruan?

Nafarroan betidanik mendirako eta eskirako zaletasun handia izan dugu. Kasu honetan ere bi elkarte daude: Irrintzi Eski Taldea eta Huarte Eski Taldea. Horiek urtero lasterketa antolatzen dute. Batak larunbatean antolatzen du eta besteak igandean. Larunbatekoa urte bakoitzean leku batean izaten da, eta Etxarrira ere ekarri izan dute. Igandekoa, normalean, Behorlegiko igoera izaten da. Gipuzkoa inguruan ere antolatzen dira. Estatuan, ordea, ez dira horrenbeste antolatzen. Normalean portuak igotzean



Jesus Goena (Goe) eta Iñaki Eskirotzek (Luze) roller skian. REBEKA

datza lasterketa. Horiek jaisteko oso ona izan beharko zara. Gu, adibidez, ez gara ausartzen. Motxila bat eramane, eta oinez jaisten gara. Lehiaketak, normalean, udazkenean dira. Jendea eskiko denboraldia prestatzen ari denean. Aurre denboraldi bezala hartzen du jendeak.

## 9 Roller skiarekin izandako anekdotaren bat?

Erorketa dexente! Kar, kar, kar! Asfaltoan erortzea gogor xamarra da, baina abiadura gutxi hartzen duzunez, arramaska txiki bat, eta berriz ere gora.


## 10 Abilezia bereziren bat behar da roller ski egiteko?


Ipar skian jakitea komeni da. Ez da bizikletan ibiltzea bezalakoa. Patinetean ibiltzearekin antzekotasun gehiago ditu, baina roller skiekin ezin da frenatu.

## 11 Nola animatuko zenukete jendea kirol hau praktikatzen?

Oso kirol kompletoa da eta lesioak sufritzeko arrisku gutxikoa. Eta zer esango dugu ba... guretako oso polita dela eta ipar eskiaren denboraldia osatzeko oso ongi datorrela. Jendea probatzera animatzen dugu, eta laguntza behar izanez gero, hemen egongo gara. Kirol merkea, osasungarria eta dibertigarria da, eta, batez ere, desberdina.

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe





**DISEINU GRAFIKOA**  
**WEB DISEINUA**  
**KOMUNIKAZIOA**

619 821 436 | info@gkomunikazioa.eus | Foru plaza, 23-1. Altsasu